

ARRASATE P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 14a / 622. zenbakia



UGARAN ESKUALDEA ARRASATERA BATU ZENEKOA


1353an, orain dela 650 urte, Garagartza, Gesalibar, Udala eta Uribarri Arrasatera batu ziren.
Bide batez, auzo horietako 600 biztanleek Gaztelako erregeak defendi zitzaala gura zuten.

ORAIN ETA HEMEN: FUSILATU ETA DESAGERTUTAKOAK /8 • KIROLA: MARKEL BLANCO, SELEKZIOAREKIN /11

AZALA: ALEX AZKARATE

INTERNETEKO IKASTAROAK ARRASATEKO EMAKUMEENDAKO

Euskaraz eta gaztelaniaz



ORDUTEGIA:

GOIZEZ:

09:30-11:30

ARRATSALDEZ:

16:00-18:00

Non:

KZGUNEAN

Noiz:

MARTXOAREN 31tik

APIRILAREN 11ra

Izena emateko epea:


MARTXOAREN

17tik 27ra

■ Emakumeen Kontseilua



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



AG Amagara

Erdiko kalea 54 ARRASATE 943 79 09 09

*Kontuz, larruazal
bakarra duzu!*


Gerta ezazu zure larruazala
Aste Santuko oporretarako
eta goza ezazu eguzkiaz!

Udaberriko eskaintza

**6 saio + 1 doan
42 € bakarrik!**

Martxoaren 14tik apirilaren 16ra

KALEINKESTA/ Poltsikoko telefonue biher baiño gehiago ibiltten dogu?



JOSE MIGUEL GONZÁLEZ
Langillie



MONTSE MARTÍNEZ
Ikaslie



ASIER GAZTAÑAGA
Ikaslie



MARI CARMEN ORMAETXEA
Etxekoandrie



JOSE MANUEL CABRERA
Langillie



EIDER ROA
Ikaslie

Neuk, behintzet, ez dot askorik ibiltten, baiñe esango neuke jentiek larregi ibiltten dauela. Telefono fñue geruago eta gutxiago ibiltten da, eta poltsikokue geruago eta gehixago.

Neuk pentsetan dot baietz. Biherezkue ez bada be, mensaje asko bielketan dittugu, eta horrek *engan-txaue*gitten dau. Telefonue etxien ixten badozu zeozer falta jatzula emuten dau.

Neuk ez dauket telefonorik, baiñe argi dau poltsikoko telefonue larregi ibiltten dogula. Jentiek leku danetara erueten dau telefonue, eta, ondo badator be, larregi ibiltten dogu.

Bai, asko ibiltten dogu; gaztiek, batez be. Mendira edo kanpora jueten garenien ondo etorten da holako telefonou bat eukittie, baiñe egun osuen holako telefono batekin ibilttie be...

Gaztiek deiketako baiño gehixago, mensajiek bielketako ibiltten daue telefonue. Batzuetan biherra-gaittik izengo da, baiñe gehixenetan ez. Dependenzia haundixe daukogu.

Jentiek telefonue jolasteko edo mensajiek bielketako ibiltten dau, baiñe biherrezko gauzetarako ez. Neure ustez, poltsikoko telefonue ondo dator kanpora jueten zarenerako.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ESPALOIAK LIBRE UTZI Altamira auzoko bizilagun batzuek jakinarazi digute ume-kotxearekin auzora igo eta jaisteko arazo latzak izaten dituztela. Kontua da hainbat lagunek autoa alda-pako espaloi gainean uzten dutela, eta ume-kotxearekin doazenak errepidera irten behar izaten dira. Aparkatzea gaitza den arren, gidari horiei kontu handiagoa edukitzeko eskatzen diete.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9

KIROLA /12

KULTURA /14

Egunkaria Aurrera

Egunkaria Aurrera herri batzordea eratu dute. *Egunkaria*-ren alde egingo dute lan.

Eskubaloian, gol baliotsuegia

AGR Arrasate eskubaloi taldeak ez du igoera faserako txartelik lortu, gol bakar bategatik.

Antzerki jardunaldiak

Iamai kafetegiak antzerki jardunaldiak antolatu ditu. Sei egubakoitzean ikuskizunak egingo dituzte.

ASTEKO DATUA

460

HARPIDETZA JASO GURA DITUZTE 'EGUNKARIA'-RAKO

Eratu berri duten Egunkaria Aurrera herri batzordeak *Egunkaria*-ren 460 harpidetza egin gura ditu Arrasaten. Horrez gain, egunkari berriaren alde dirua batzeko asmoa dute.

BESTE EKESANA

Politikoa asko bizi da komunikabideetatik. Komunikabideetan agertzen denak garrantzia handia dauka politikoarentzat. Niretzako esklabutzarik handiena egunero prentsa irakurri beharra zen, zer esaten duen eta nola esaten duen ikusteko (...) Ez dakit komunikabideek askatasunez betetzen duten bere funtzioa. Batzuk lotuta daude dirulaguntzak lortzeko, beste batzuk ideologikoki... Interesatzen denaz informatzen da, ez egiten den politikaz. Hori nabarmena da hauteskundeetan. Komunikabideak jarraera bat hartuta egoten dira ordurako, eta gizartearen zer mezu zabaldu gura duten badakite (...) Ez genuke (politika) politikoen esku bakarrik utzi behar. Gizartearen esku egon behar du.

JABIER RETEGI
'ARGIA'/03-03-12

HERRITARREN BERBAK/ Antton Mendizabal



Egunkariaren itxialdia eta Mamon

España abarca de Irun a Algeciras y de Finisterre al Cabo de Rosas", Martxelo Otamendik 500 aldiz errepikatutakoa, *Egunkaria*-ren itxialdiaren, torturen eta atxiloketen benetako helburua adierazten du. Kontua ez da Euskal Herriko erresistentziarekin euskal munduko gidariek eduki duten harremana; historikoki Espainiako Estatuak lurralde osoan nazio bakarreko izaera duen gizarteak gauzatu gura duela baizik. Kontua ez da PP alderdi faxista estatu demokratiko baten gobernuan egotea. Benetako auzia askoz estrukturalagoa da: Estatuak nazio anitzeko errealitateak ukatu egiten ditu. Desberdina dena ukatu egiten ditu. Estatu faxista, inperialista eta arrazistaren aurrean gaude, eta gizartearen nazio anitzeko izaera ukatzen du.

Esandakoa 1978ko konstituzioan islatzen da. Nazio subiranotasunari eta hizkuntzari tratamendu zehatza ematen

dion arren, nazio bakarreko izaera inperialista erakusten digu. Lurraldeek konpetentzia gehiago edo gutxiago dituzte, baina soberania zero. Onak bagara (Estatuarekiko mende-kotasuna adieraziz), konpetentziak mantenduko dizkigute, baina ez, ordea, gure eskubideak aldarrikatzen baditugu. 25 urte iraun dituen demokrazia faltsu horrek bi jarrera ekarri dizkigu: kolaborazionismoak euskal disidentziarekin bukatzeko frankismoaren logikoa bereganatu du. Sumisioa, bestea,

euskal gizartearen aurkako inposaketa inperialista bereganatu du.

Botere politikoan, funtzionaritzan eta botere ekonomikoan txertaturik dagoen sektore berriak kolaborazionismo eta sumisioaren kulturari lagundu dio. Mamon jaingoaren (boterearen eta diruaren) jarraitzaileak dira, borroka guztien aurkakoak, zapalkuntza denak justifikatu eta gutxiagotzen dituztenak.

"Botere politiko eta ekonomikoan eta funtzionaritzan txertaturik dagoen sektorea Mamon jaingoaren jarraitzailea da"

Arrasate

Otalora Lizenziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 14
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

ZAPATUA, 15
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30

DOMEKA, 16
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09

ASTELEHENA, 17
Español. Araba etorb. 943 79 18 65

MARTITZENA, 18
Azkoaga. Ferrerías 5. 943 79 15 15

EGUAZTENA, 19
Azkoaga. Iturriotz 33. 943 79 79 99

EGUENA, 20
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

Arrasate
Astelenehetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRIAOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza . . . 943 79 81 57

MONTERRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (gaztelaniaz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Jalegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ODOLA EMATEKO EGUNAK
Martxoaren 18an, 19an eta 20an odola emateko aukera egongo da Arrasateko anbulatorioan, 16:15etik 20:00etara.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, hilaren 20an, *La pizarra* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

EUSKAL DANTZA IKASTAROA
Udaleko Gazteria Sailak eta Lore Gazteak dantza taldeak Euskal dantza ikastaroa antolatu dute. Egubakoitzetan egingo dute, 19:00etatik 20:30era. Bederatzi euro ordaindu beharko da.

SAETA LEHIAKETA
Zapatuan, hilaren 15ean, Andalusek Saeta Lehiaketa antolatu du. 23:00etan izango da eta bost abeslarik hartuko dute parte.

ZUHAITZ EGUNA
Martitzenean, hilaren 18an, 200 pago landatuko dituzte Garagartzan. 10:30ean elkartuko dira.

MUSIKA ETA POESIA
Domekan, hilaren 16an, *Bahia Naufragio* ikuskizuna Jai-Zale tabernan. 21:00etan izango da eta musika, poesia eta margolanak uztartuko ditu saioak.

AEDren AGENDA

EKIN-EN BATZAR OROKORRA
Martxoaren 20an, Ekin Emakumeak elkarteko bazkideek batzar orokorra egingo dute AEDko egoitzan, 18:30ean.

KULTUR ERROTA
Martxoaren 21ean, Bihar Berriz pop-rock taldeak joko du Amaia antzokiko hall-ean, AEDk antolatuta.


URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erquin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erquin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Ibarreko lau sindikatuk mobilizazioak egin zituzten



Ekonomiaren egoera larria zela-eta, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek akordioa egin zuten EAEn. Debagoienean ESK batu zitzairen, eta jendea kontzientziazteko mobilizazio-egutegia antolatu zuten: INEMen aurkako salaketa, mozioak eta giza kateak, besteak beste.


BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txirritxua"



Likido zorrotada.
—Gure iturrixak udan txirrixo txixixa dauka.
—Egundoko odol-txirrixua botaiaz eruan zeben ospitalera.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'Sukaldeon.org' wegunea ezagutzen

Eguaztenean, sukaldearen tartean, Edorta Agirre gastronomia aditua izango da Arrasate Irratian. Sukaldaritzaren gaineko ataria jarri berri du Interneten Edortak, beste lagun batzuekin, eta gainera euskaraz dago. Atari horretan zer aurki dezakegun kontatuko digu Edortak. Nazio Batuen erakundearen gainean ere egingo dugu berba historia irakasle batekin. Azkenaldian sarri berba egiten da Nazio Batuez; erakunde horren nondik norakoak jakingo ditugu.



Jasone Osoro, erotismoaren gainean

Jasone Osoro idazlea ibarrean izan da, eta hori aprobetxatuz herriko irratiko mikrofonoetara hurreratu da. *Erotismoa eta pornografia literaturan* izan dugu hizpide idazlearekin. Elkarrizketa zapatuan eta domekan berriro entzuteko aukera izango duzue. Bestalde, Garizumaren inguruan Eusebio Iñarrak kontatutakoa ere berriro eskainiko dugu. Baita Ainhoa Larrañaga abokatuak errendamenduen gainean emandako azalpenak ere.

HAUGIROA!

MINIMOA 1°C
Astelena, 10

MAXIMOA 27°C
Martitzena, 11

ASTEKO EURIA (l/m²) 17,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	19 °C	3 °C	14,1 l/m²
Eguena, 6	16 °C	7 °C	3,1 l/m²
Egubakoitza, 7	16 °C	3 °C	- l/m²
Zapatua, 8	19 °C	4 °C	- l/m²
Domeka, 9	24 °C	3 °C	- l/m²
Astelena, 10	25 °C	1 °C	- l/m²
Martitzena, 11	27 °C	5 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: elemerideak, zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

EGUBAKOITZA
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak: Jasone Osoro, Mikel Markez, *Berbeta berria* liburua, Ainhoa Larrañaga abokatuak...

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

MUren oharra 'Egunkaria'-ren gainean

Mondragon Unibertsitateko Kontseilu Errektoreak *Euskaldunon Egunkaria* berehala irekitzeko eskatu du. Hedabideetara bidalitako ohar baten gogor kritikatzan du *Egunkaria* ixteko agindua.

MUko Kontseilu Errektoreari kezka handia sortzen dio zuzenbide estatuan halako salbuespen-neurriak hartzeak. Deliturik izanez gero, erantzukizun pertsonalaren bidez erantzun behar zaiola gaineratzen du MUk. Horrez gain, atxilotuei eman beharreko tratua pertsonen duintasuna eta segurtasuna bermatu behar ditu. Hori, besteak beste, MUren Kontseilu Errektorearen oharra dioena.

San Andresko parrokia, zor barik

Arrasateko Udalak 1.800 euroko dirulaguntza emango dio San Andresko parrokiari. Diru horrekin parrokiak zorrak kitatu ahal izango ditu; izan ere, Gabonetako jaiotza dela eta San Andresko parrokiak gastu handiak izan ditu.

Zorra ez da aurtengoa bakarrik. Orain dela bi urte, diru galera handiak izan zituzten, Santa Barbaran jarri zuten jaiotza ezezagun batzuek apurtu egin zutelako. Jaiotza konpontzeko diru asko behar izan zuten, eta iaz erabaki zuten jaiotza lekuz aldatzea. 1.800 euroko laguntzarekin zorrak kitatu, eta datorren urteko jaiotza hobetuko dute.

Epaitegietan ere euskaraz

Debagoieneko euskara elkarten elkargoak (Debagune) justizia euskalduntzeko kanpaina jarri du abian. Euskararen erabilera epaitegietan oso txikia dela eta, kanpainak euskara sustatzea du helburu. Euskal Herrian, eta Debagoienean zehatzago, justizia erdalduna izatearen arduradun nagusiak herritarrok ez izan arren, Debaguneraren iritziz, egoera hori aldatzeko giltza herritarrona da.



Odol ateratze gehiago datorren astean

Oraingo astean odol ateratzeak egin dituzte anbulatorioan, eta datorren astean ere egingo dituzte: martitzenean (hilak 18), eguaztenean eta eguenean izango dira. Betiko moduan, 16:15etik 20:00etara ibiliko dira odola ateratzen. Eta, jakina, zenbat eta emaille gehiago joan, hobeto.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Konpromisoa kolokan

Aste honetan jakin dugu Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa jende faltan dabilela. Duela gutxi ospatu ditugun Arastuetan konpartsak kalera irteteko asmoa zuen, baina azkenengo 18 urteetan ez bezala, aurten erraldoi eta kilikiek ez zuten kalejirarik egin, jende barik gelditu zirelako.

Bitxia da urtez urte jai

guztietan kalean ikusi ditugun erraldoi eta kilikien konpartsa desagertzeko arriskuan dagoela pentsatzea. Seguruenik, halako talde *klasiko* baten jende faltan egotea egoera baten erreflexu argia da. Aspalditik dago halako sentsazioa herriko elkarteetan: arlo gehienetan parte-hartzea oso eskasa dela, hain zuzen ere.

Ez da nire edo gure asmoa

gauzak ilun jartzea, baina ARRASATE PRESSen lan egiten dugunok herriko hainbat alor ezagutzeko aukera daukagu eta badakigu joera hori kultur elkarte ez gain, esaterako, kiroletan ere gertatzen dela.

Ez da kontu berria, baina zoritxarrez 80ko hamarkadan eta kooperatibismoaren sorreran gizarteak berak eta herritarrek hartzen zituzten konpromisoak ez dira gaurkoak. Ea, ba, horri neurri baten buelta ematen diogun!

ASTEKOIRUDIA



EGUNKARIA AURRERA, ORAIN ETA BETI

Egunkaria-ren aldeko gizarte ekimenek ez dute etenik, eta badirudi aurrerantzean ere indartsu jarraituko dutela. Oraingo honetan, *Egunkaria Aurrera* taldea sortu dute. Batez ere, harpidetzak lortu gura dituzte: 460, hain justu ere. Eta bestelako ekimenak ere egiteko asmoa dute; hori guztiori, euskarazko bes-

te egunkari bat sortzeko. Azken baten, euskara barik ez ginateke euskaradunak/euskaldunak izango. Eta euskararen egoera makal samarra da, bereziki, mendetan jasandako erasoengatik. Zoritxarrez, horrelakoetara ohituta gaude, baina, era berean, horri esker aurrera egingo dugu. Duda barik. /U.M.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20



Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

HISTORIA/ Orain dela 650 urte, Garagartza, Gesalibar, Uribarri eta Udala Arrasateko udalerrira anexionatu ziren

1353an Ugaran eskualdeko lau auzoak Arrasateko udalerrira batu zirenekoa

IKER BARANDIARAN/J.A. RAMOS

Orain dela 650 urte, 1353an, Ugaran eskualdea osatzen zuten lau auzoak –Udala, Garagartza, Uribarri eta Gesalibar– Arrasateko udalerrira anexionatu ziren. Sasoiko erasoaldi eta lapurreten aurrean defendatzeko batu ziren Arrasatera.

Orain dela 650 urte, 1353an, Ugaran eskualdea osatzen zuten lau auzoak –Udala, Garagartza, Uribarri eta Gesalibar– Arrasateko udalerrira anexionatu ziren. Sasoi hartan, lau auzo horietan 600 bat lagun bizi ziren, eta sasoiko erasoaldien eta lapurreten aurrean defendatzeko, Arrasateko udalerrira batzea erabaki zuten. 1353ko azaroaren 17an anexionatzeko ekitaldia egin zuten Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan, eta Arrasateko *carta puebla* edo hiri-gutunarekin bat egin zuten. Arrasateko hiri-gutuna egin eta 93 urtera bat egin zuten Ugarango lau elizateek.

San Juan Bataiatzailearen elizan batutako ugarandarrek zera jakinarazi zuten: arrasatear bilakatuko zirela eta, horrekin batera, euren ondasun guztiak –base-riak, etxeak, lurzorua...–, sustraiak eta aurrerantzean egingo zuten guztia Arrasateko herriaren zerbitzura jarriko zituztela. Era berean, ugarandarren ekintza, eskubide, zerga edo eginbehar guztiak Arrasateri eta, bide batez, Gaztelako errege Pedro I.ari agindu zizkioten. Hori guztia ziurtatzeko, Pedro I.ari idatzi bat bidali zioten. Hala ziurtarazi zuten, besteak beste, Juan Ibañez de Apa-



Kondairek diotenez, Garagartzako auzunean laminak bizi ziren. Horrez gain, auzo berean Lezetxikiko koba garrantzitsuak daude.

tria eskribauak 1353ko azaroaren 13an.

Arrasatera anexionatzeko arrazoi nagusienetakoa honako hau izan zen: sasoi hartan Arra-

sateko harresia eraikitzen hasi ziren, eta horren bidez segurtasun handiagoa izango zutela uste zuten. Horren harira, anexio ekitaldian batutako ugarandar bako-

itzak 2.000 marabedi eskaini zizkion Arrasateko Udalari, Arrasateko harresia izango zena eraikitzen laguntzeko.

ISASIGAÑA ETA ERENUSKETA

Sasoi hartako dokumentuetan idatzita dagoenaren arabera, Garagartza inguruko Isasigaña eta Erenusketa baserriak Garagartzako elizatekin kanpo zeuden. Hala ere, gainerako ugarandarren moduan Arrasaterekin bat egin zuten 1353an, hiri-gutun bera bere eginenez. Iraganean, lau elizate horiek Ugaran izeneko eskualdea osatzen zuten. Eskualdearen izena *ugara* berbatik dator: uraren ibarra edo putzutako ibarra, hain zuzen ere. Gaur egun izen hori ez da ia erabiltzen, eta galtzeko zorian egon dela esan genezake. Irakurtzen ari zareten artikulua izen hori berreskuratzeko ahalegina da.

Iraganean Ugaran osatzen zuten lau elizate horiek euren artean lotura handia zuten, gaur egun dagoeneko zeharo galduta dutena. Esaterako, urteko hainbat egunean erregute publikoak egin zituzten, Urkiolara erromesaldi bateratuak antolatzen zituzten, eta hileta-elizkizunetako apaingarriak oso antzekoak ziren. Era berean, Pazkoetan elizate


Arrasatek eta Gaztelako erregeak defendatzea gura zuten Ugarango herritarrek

Ugarandar bakoitzak 2.000 marabedi eskaini zituen Arrasateko harresia eraikitzeko

bakoitzeko parrokoak batu eta txandaka elizate bakoitzera aitortzak entzutera joaten ziren. Elizate horien artean bazegoen harremana, baina gaur egun galdu egin da.

SANTA AGEDAKO GESALIBAR

Gesalibar izenak honako jatorria dauka: ur gazietako ibarra. Gesalibar auzoan ur sufretsuen eta burdintsuen iturburu garrantzitsuak daude, eta antzintatik auzo-



ARRASATE PRESS

Udalatx mendiaren magalean dagoen Udala auzoa bi zatitan banatuta dago.



ARRASATE PRESS

Gesalibar auzoak ospe handia hartu zuen, bainuetxeari esker. Egun, erietxe psikiatrikoarengatik ezaguna da.

tarrek probetxu handia atera zieten iturburu horiei. Garibaik geroago ezagutzera eman zuen moduan, Gesalibarko urak gaitzak osatzeko oso onak dira. Aipatu beharra dago Garibairen ama Gesalibarko Errotaetxe baserrikoa zela.

Gesalibarren dauden ur sufretsuen iturburuetatik hiru bakarrik ustiatu dituzte. Ezagunena *apaizarena* deitzen dutena da,

1706an Ignacio de Gurrea parrokoak ustiatu zuelako. Geroago eta udatiar gehiago Gesalibarerra joaten hasi ziren, eta auzotar batzuek egurrezko bainuontziak eskaintzen zituzten. 1825ean, Ramon Mendiak *Metalsolo* izeneko lurzoru erosi eta bainuetxe-ostatu bat eraiki zuen. 1845ean, Isabel II.a erregina bainuetxera joan zenean, Arrasate eta Gesalibar arteko errepidea egin zuten, erre-

ge bidearen ibilbide bera jarraituta. 1873tik 1875era, karlistaldiak iraun zuen bitartean, bainuetxea gerra-erietxe bilakatu zen. Bainuetxeak ospe handia hartu zuen eta sasoiko pertsonalitate asko joan ziren. Bada, 1897ko abuztuaren 8an, Angiolillo anarkistak Canovas del Castillo -Espainiako gobernuko presidentea- bainuetxean hil zuen. Jabeek, atsekabetuta, bainuetxea saldu egin zuten eta 1898an erietxe psikiatrikoa zabaldu zuten. Zoritxarrez, auzoko iturburuak ez dira aprobetxatzen eta errekak eramaten ditu.

GARAGARTZA

Garagartzako hirigunea higidura zirkularrean lerrokatutako dozena bat baserrik osatzen dute, Ugarrango ibarraren erdian. Aditu batzuek diotenez, Garagartzako plaza Gipuzkoan dagoen politenariko bat da. Plaza inguratzen duten baserriez gain, Udala eta Murugaindik gertu ere beste baserri batzuk daude.

Egungo kontu horiez gain, his-

toriaurrean ere izan du zeresana Garagartzak: horra hor Lezetxikiko koban aurkitutako aztarnategi garrantzitsuak eta laminen kondairak. Horrez gain, auzoan, antzina, egun desagertuta dauden ermitak zeuden. Esate baterako, Madarixa alboan zegoen San Lorenzo ermita, 1771n itxi zutena; Erenusketan zegoen Santiago ermita, hura ere 1771n itxia. Auzoan oinetxe eta baserri dotoreak izan ziren: Erenusketa, Isasigain, Akixo, Etxebarri, Santamaixo, Jauregibarria, Saratzaga, Barrutia eta beste batzuk.

URIBARRI

Ugaran eskualdeko lur emankorren osatzen dute. Auzoa osatzen duten sakabanatutako baserriek lorezaintzan eta baratzeko ekoizpenean trebetasun handia erakutsi dute aspalditik. Urribarriko historian atzera egiten badugu, derrigorrez, Ibarreta baserria aipatu beharra dugu. 1464ko maiatzean, Martin Báñez de Artazubiaga haren lagun eta lankide Juan Ibáñez de Barrutiakin Ibarreta baserrian zuen burdinolatik irten zen. Oinaztarrek Aramaio-ko bi Ganboatarrak hil gura zituzten, 1448an Arrasate erre zutelakoan. Hala agindu zien Juan Alonsok, eta hala egin zuten. Egun, Ibarreta baserriaren ondoan dauden bi gurutzek gogoratzen dute bi Ganboatarrak hil zituzteneko pasarte ilun hura.

Báñez de Artazubiagaren alargunak, Sancha de Ozaetak, hileta-elizkizunetan mendekua eskatu zuen. Esan eta egin. Probin-tziako alkateen ermandadeak batu eta bost Oinaztar hiltzaileendako heriotza zigorra eskatu zuten. Bost horietatik bi espetxeratu egin zituzten; bat Arrasaten, Kondekuan exekutatu zuten, eta bestea Bilbon.

Báñez de Artazubiagaren alargunak hilketaren lekuan ermita bat eraikitzeke ordenua egin zuen. Haren semeak amaren nahia bete eta Martin Báñezek Santa Maria de Areaza eta San Antonio Abad ermita eraiki zuen.

UDALA

Udalatx mendiaren magalean kokatuta dagoen auzo hori nekazaritzan eta abeltzaintzan espezializatuta egon da. Auzoa bi baserri taldetan banatuta dago: goikoa eta behekoa.

Udalatik gora, ia Udalatxen puntan, antzinako ermita baten aztarnak daude. Igokundeko ermitaren (Ascensión) lehenen-

*Lezetxikiko
aztarnak eta
laminen kondairak
dira Garagartzako
bereizgarri*

*VIII. menderako
dagoeneko bazegoen
Udalatxen puntan
dagoen Igokundeko
ermita*

*Gesalibarrek ur
sufretsu eta
burdintsuen
iturburu
garrantzitsuak ditu*

go erreferentziak 1570ekoak dira. Esteban de Garibaik ermita hartan bizi ziren eskribauen eta ermitauren berri eman zuen. XVII. mendean, Bernardo de Balbuenak Orreagako guduaren gainean idatzitako liburu baten Goikundeko ermitatik joandako zaldun bat zegoela aipatu zuen. Kontuan izan behar da Orreagako gudua 777an izan zela. XVI. eta XVII. mendetan Goikundeko ermitan mezak egin zituzten. 1925ean, Juan Carlos Gerrak ermita berriro eraikitzeke ahalegina egin zuen, baina e zuen lortu.

Bestalde, Udalako Martin Abade abadearen kondaira oso bitxia da. Kontatzen dutenez, batzuetan Martin Abaderen txakurren ulu errukarriak entzun daitezke. Kondairak kontatzen duenaren arabera, behin baten, Martin Abade Udalan meza ematen zebilela, bere txakurrak kanpoan zaunka entzun zituen. Txakurrek zerbait ehizatu zutela pentsatu zuen, eta bat-batean meza bertan behera utzi, eskopeta hartu eta korrika alde egin zuen. Txakurren atzetik basoan korrika sartu zen eta ez zen inoiz bueltatu. Kondairek diotenez, justizia jainkotiarrek zigortu zuen eta haren arimak ez du oraindik atsendenik hartu.



ARRASATE PRESS

1464an, bi Ganboatarrak hil zituzten Urribarri. Hori gogoratzeke bi gurutzak daude.

Sasoiko ugarandarrak Arrasateartu

1353ko azaroaren 17an, Ugarrango osatzen zuten lau auzoetako biztanleek Arrasateko udalerrira anexionatzeko ekitaldia egin zuten. Ekitaldi hura San Juan Bataiatzailearen elizan egin zuten. Jose Mari Urangak *Mondragon. Trayectoria y anecdotario* liburuan batu zituen ekitaldian egon ziren hainbat lagunaren izenak. Auzo horietako biztanleak eta arrasatearrak pregoiaren bitartez deitu eta elizan batu zituzten.

Honako lagunak ageri dira: García

López Zapatero, Pedro Martínez de Urrieta, Pedro Ibáñez de Oleaganos, Pedro Migel de Garagartz, Fortun Ibáñez de Ibarreta, Rodrigo Ibáñez de Ibarrodo, Martin Ibáñez de Barrutia, Pedro de Auztarriza, Juan Balz, Pedro Mortal, Juan edo Sancho de Gesalibar, Juan de Zuri, Juan de Iguria, Juan de Aranburu, Juan edo Sancho de Isasigaña, Juan de Gebara, Juan de Arraniz, Pascual de Osinaga, Juan de Oleaga, Pedro García, García de Zarate edo Eyante eta Fortun de Ortuzar.

ELKARRIZKETA

IÑAKI CARRO/ESK SINDIKATUKO KIDEA

“Benetan berdintasuna gura badugu, aukeratzeko askatasuna behar dugu”

UBANE MADERA

Iñaki Carro seataotarrarekin berbetan egon gara oraingo astean. Hura ESK sindikatuko kide da eta, horrez gain, Sestaoko Langabeen Taldeko kide ere bada eta giza bazterketaren kontrako zenbait taldetan lan egiten du. Oinarrizko Errentaren gainean berba egitera etorri zen Arrasatera.

Hasteko, zer da Oinarrizko Errenta?

Lehenik eta behin, esan beharra dago gaur egun badagoela Oinarrizko Errenta. Eusko Jaurilaritzak ematen duen laguntza da; baldintza jakinak betez gero jasozten dena (pobrezian egon beharra dago, ez zaio gizabanako bakoitzari ematen, familiei, baizik...).

Baina, guk beste Oinarrizko Errenta mota bat eskatzen dugu: jende guztiari emango liezaiokeen laguntza eskatzen dugu; lanean dabilenarendako edo ez dabilenarendako... baldintza bakoa eta unibertsala litzateke laguntza hori.

Nonbaiten ematen dute halakorik?

Ez, eskaera nahiko berria da eta nahiko ezezaguna. Baina, guk uste dugu etorkizunean izango dela halako zerbait egiteko aukerarik.

ESK-ko ordezkariekin bilera egitera etorri zara Arrasatera, zer da lortu gura duzue-na?


Aurten, martxoaren 8rako bi gai lotu gura izan ditugu: emakumeen arazoak eta Oinarrizko Errenta.

Izan ere, gure iritziz, jakinokoa da emakumezkoak direla pobrezia gehien pairatzen dutenak. Eta guk uste dugu Oinarrizko Errenta pobreziaaren kontra borrokatzeko tresnarik hobere-na dela.

Bestalde, Oinarrizko Errentak benetakoa askatasuna emango luke, aukeratzeko askatasuna. Horrek onurak ekarriko lituzke jende guztiarendako, baina, batez ere, emakumeendako. Izan ere, lan baldintza kaskarretan egonez gero (emakumeek dituzte lanbaldintzarik txarrenak), beste zerbait hautatzeko aukera edukiko luke; eta gauza bera gertatuko litzateke familia barruan, norberaren etxebizitzaren barruan.

Hortaz, zure iritziz independentzia ekonomikoa ezinbesteko tresna da berdintasuna lortzeko?

Bai, hori oso garbi dago. Benetan askatasuna eta berdintasuna lortu gura badugu, aukeratzeko askatasuna eduki behar dugu.



UBANE MADERA

Oinarrizko Errentaren gainean berba egin zuen Iñaki Carrok Jai-Zale tabernan.

“Emakumeek jasaten dute gehien pobrezia; Oinarrizko Errenta horri aurre egiteko tresnarik onena da”

Eta, Oinarrizko Errentak hori ematen du: lan baldintzak hobetzeko askatasuna, familia barruko harremanetan aukeratzeko askatasuna... Adibidez, emakume askok orain pairatzen dituzten tratu txarren zergatia galde-tu beharko genioke geure buruari. Gure ustez askatasun horren faltagatik da. Emakume asko senarraren soldataren menpe bizi dira, ez daukate diru-sarrerarik eta horregatik segitzen dute egoera larri horretan.

Joan den astean entzundako adierazpen batzuen arabera, gaur egun ume gutxi dago, eta bide beretik segituz gero, pentsio publikoak galtzeko arriskuan izango gara. Zelanbait amatasuna eta emakume langilearen egoera kontrajartzen dira hor. Zein da zure iritzia?

Nire iritziz, neoliberalismoak gura duena da geroago eta diru laguntza gutxiago eman, pentsio publikoak geroago eta murriztza-koak izatea. Horrela, jendeak pentsio pribatuen planak kontratatut beharko lituzke eta giza lagun-

“Kontua ez da zenbat ume dituzten, baizik eta zelan banatzen dugun aberastasuna”

etzen baitan mugitzen den izugarriko dirutza bankuen eskutetan egongo litzateke. Hori lortzeko beldurtu egin gura gaituzte, esanez etorkizunean ez dela diru nahikorik egongo.

Horren aurrean, guk esango genukeena da arazoa ez dela emakume bakoitzak zenbat seme-alaba dituen, baizik eta zelan banatzen dugun dagoen dirua.

Horrekin batera, alde batetik, emakumezkoek lan egin ahal izateko eskubidea eskatzen dugu, baina, horrekin batera, beste alde batetik, umeak izatera behartzen ditugu.

Esan bezala, gure iritziz, kontua ez da zenbat seme-alaba dituzten, baizik eta zelan banatzen dugun gizartean dagoen aberastasuna.

Horrez gainera, munduko biztanleria igotzen doa orokorrean; hortaz, ez dakit zergatik duten horrenbesteko beldur etorkizunean ume nahikorik egongo ez delako.

Hori guztiari inmigrazioarekin lotuta dago, eta luze berba egiten jarrai genezakeen...

‘Egunkaria’ dela-eta, hiru mozio aztergai

UBANE MADERA

Hamalau gai landu zituen joan den astean udalbatzarrak eta hamalauak onartu. Besteak beste, taxien 2003ko prezioak, Iturbide egoitzako garbiketa eta sukaldaritza zerbitzuen adjudikazioa, eta *Egunkaria*-rekin lotutako mozioa.


Hain justu ere, *Egunkaria*-ren kontrako polizia operazioa dela-eta euskalgintzak aurkeztutako mozioaz gain, EAJk eta PSE-EEK nork berea aurkeztu zuen. Laburbilduz, EAJk gertaera salatu zuen eta langileei elkartasuna adierazi zien, tortura eta tratu txarren salaketak ikertzea eskatu zuen eta ardura penalak eta politikoak zuzitzea; euren esanetan, gertatutakoak helburu politikoa du, *Egunkaria* berriro zabaltzeko eskatu zuten eta euskara eta euskal kultura indarke-riarekin lotu gura izatea salatu zuten. PSE-EEK, berriz, errespetua eskatu zuen Estatuarendako eta Botere Judizialarendako; esan zuen Botere Judizialak ez duela botere politikoaren eraginik izan; euskara, guztion ondarea izanda, ez dela modu alderdikoian erabili behar, eta lehenbailehen argitu behar direla *Egunkaria*-k ETArekin izan zezakeen harremanak. Horrez gain, administrazioak halako komunikabide bati dirua eman ez gero, honako baldintzok bete beharko lituzke: pluraltasuna, etika, demokrazia eta halako balio-

en defentsa egitea eta guztiendakoa izatea. Kontuak kontu, boz-keta egin ostean, aurkeztutako hiru mozioen artean euskalgintzarena onartu zuten.

TAXIEN TARIFAK

Horrez gain, bestelako gai batzuk ere landu zituzten bilkuran. Adibidez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak 2003ko prezioak %5 igotzea proposatu zuen. Baina Gobernu batzordeari larregikoa iruditu zitzaion eta KPIren igoeratik behar-erako tarifa onartzea erabaki zuen. Horrela, %4 igoko dira prezioak. Horren arabera, egunez egiten den kilometro bakoitzeko 0,78 euro ordaindu beharko da eta gauean eta jaiegunetan, 1,25. Bietan 2,50 kostatuko da bandera jaitea.

Bestalde, Garaia proiektuaren baitan eraikiko diren etxebizitzak egiteko Landu Promozioak izene-ko enpresarekin hitzarmena sinatzea erabaki zuen Gobernu batzordeak. Hori bai, besteak beste, PSE-EEren kontrako botoekin onartu zuten puntu hori. Alderdiko bozeramaile Paco Garciak adierazi zuen susmoak dituztela Udalaren eta Landu Promozioak enpresaren harremanen gainean. Paco Garciak ez zuen gai horren gaineko beste ezer argitu, haren esanetan, frogarik ez duelako. Horrez gain, Iturbide Egoitzako garbiketa eta sukaldaritza zerbitzuak Auzo Lagun enpresari adjudikatzea onartu zuten, ASArekin abstenzioarekin.

**Irakera astebeterako, giza ezkutu**

Ander Rodríguez arrasatear gaztea Bagdadera doa bihar, zapatua, eta hantxe izango da astebetetz. Komite Internazionalistak taldeko beste lagun batzuekin doa, Iraken kontra egin gura duten gerraren aurrean irakiarrei babesa ematera. Horrez gain, gertutik bizi gura dute hango herritarren egoera. Eraso gertatuz gero, lekuko izango dira eta, gainera, dokumental bat grabatuko dute eta argazkiak egingo dituzte, eta gero hemen erakutsi.

36ko gerran desagertutakoak eta fusilatutakoak oroitzeko ekimenak

UBANE MADERA

Batzarra egin du oraingo astean 36ko gerran desagertutakoak eta fusilatutakoak senideen eta lagunak batzordeak. Ibarreko udaletan mozioa aurkeztuko dute, ekainean omenaldia egingo diete eta apiriletik maiatzera erakusketa egingo dute.

Batzarrean esandakoaren arabera, ibarreko 41 lagunek osatzen dute talde hori. Horiematik 36 Espainiako gerran fusilatutakoak senideak dira.

Batzordeko kide Juan Ramon Garaik adierazi zuenez, batzorde horren nahia da salatzen dituzten moduko gertakariak ez daitezela berriro gertatu. Era berean, nabarmendu gura dute euren senideak bizi izan zirela; izan ere, euren ustez, badirudi existitu ere ez zirela egin. Horrez gain, askatasunaren alde hil zituztela onartzea ere lortu gura dute.

MOZIOA, OMENALDIA ETA ERAKUSKETA
Hori lortzeko, besteak beste, erabaki dute mozio bat aurkeztuko dutela ibarreko udaletan. Zazpi puntutan, honakoa eskatzen dute: besteak beste, hilketa horien bidegabekeria aitortzeko; horrelakorik



Geroago eta jende gehiagoren berri jasotzen dabilza batzordean.

errepikatu ez dadin gertatutakoa ez ahazteko ekimenak egitea (erakusketak...); fusilatutako guztien izenekin eraiki gura duten monolitoaren alde egitea; egingo dute omenaldian parte hartzea; gorpuzkiak berreskuratzearen alde egotea; fusilatutakoak heriotza agirietan gertatu zitzaizkien egiazko adierazpena; eta egin gura dituzten ekitaldiak diruz laguntzeko.

Horrez gain, iragana berres-

kuratzeko erakusketa ibiltaria egingo dutela ere iragarri zuen batzordeak. Apirilaren 11n hasiko da Oñatin eta ekainaren 8an bukatuko da, Arrasaten. Tartean, beste lau herritan ipiniko dute.

Eta, ekainaren 8an omenaldia egingo dute Arrasaten. Laubide plazan izango da. Besteak beste, fusilatutako guztien izenak dituen monolitoa ipintzea gura du Deba-goieneko fusilatuen senitarteko eta lagunak batzordeak.

Egunkaria Aurrera taldeak, besteak beste, 460 harpidetza lortu gura ditu

U.M.

Egunkaria Aurrera herri batzordea sortu dute Arrasaten. Martitzenean egin zuten aurreko batzorra, eta 30 lagun baino gehiago elkartu ziren. Besteak beste, Arrasaten 460 harpidetza egitea da helburuetako bat. Horrez gainera, dirua batuko dute.

Herri batzorde horrek hiru helburu nagusi ditu: *Egunkaria* rendako dirua batu, harpide berriak egin eta mobilizazioak antolatu. Hain justu ere, horietatik dira Kontseiluak markatutako lan-ildoak.

Horretarako, lau lantaldetan banatu ziren herri batzordeko kideak: dirua batzeko taldea; harpidetza taldea; mobilizazioak antolatze taldea; eta hori guztiari koordinatuko duen beste talde bat.

INFORMAZIOA BATU

Hasteko, informazioa batzen hasiko da herri batzordea. Orain arte Arrasaten zer egin den jakin gura dute; adibidez, zenbat harpide egin diren Arrasaten. Izan ere, lehen esan bezala, Arrasateko herri batzordeak, guztira, 460 harpide lortu gura ditu Arrasaten.



Hogeita hamar lagun baino gehiago elkartu ziren osoko bilkuren aretoan.

Behin Arrasateko egoera zein den ikusita, aurrera egingo dute. Hori guzti hori, jakina, *Egunkaria*-ko ordezkariekin elkarlanean egingo dute. Hau da, adibidez, oraindik ez dakite Arrasaten zenbateko diru-kopurua batzea komeni den. Hori, *Egunkaria*-koekin zehaztuko dute. Edozelan ere, dagoeneko zabaldu du Kontseiluak kontu korrontea Euskadiko Kutxan. Honakoa hauxe da zenbakia: 3035009256 092005 5559.

JENDE GEHIAGO GURA

Esan bezala, 30 lagun baino gehiago elkartu ziren osoko bilkuren aretoan, Egunkaria Aurrera herri batzordea sortzeko. Edozelan ere, antolatzaileen esanetan, taldea zabalik dago parte hartu gura duenarendako; are gehiago, jende gehiagok parte hartzea komeni da. Interesa duenak 943771228 telefonora deitu dezake edo kultura@aedelkarte.com helbidera mezua bidali.

LABUR

'Garapen Jasangarria Arrasaten' izeneko CD interaktiboa aterako dute

Garapen jasangarriaren gaineko CD interaktiboa ateratzea erabaki du Udalak. Kontua da iaz gai horren gaineko 12 bideo atera zituela Udalak eta orain, bideo horietan emandako informazioa gehiago zabaldu gura dutela, liburutegietan, eskoletan... Hain justu ere, informazio horren helburua da garapen jasangarria lortzeko irizpideak ematea. Horrela, bada, oraingo asteko Gobernu batzordeak erabaki du Dragoi Produktions enpresari adjudikatzea lan hori. 500 CD interaktibo aterako dituzte.

Emakumeendako Informatika ikastaroa antolatu dute KZGunean

Martxoaren 31n hasi eta apirilaren 11ra arte emakumeendako Informatika ikastaroa egongo da Uarkapeko KZGunean. 20 orduko ikastaroa izango da, eta Internet erabiltzeko eskolak emango dizkiete emakumeei.

Udaleko Emakume Sailak antolatu du ikastaroa eta hiru helburu lortu gura ditu: emakumeak informatikara hurreratzea, Internet erabiltzera animatzea eta KZGunea zerbitzu moduan ezagutzera ematea.

Datorren martitzenean Zuhaitz Eguna egingo dute Garagartzan

Urtero moduan, umeak eta erretiratuak ibiliko dira zuhaitzak landatzen Garagartzan. 10:30ean elkartuko dira Garagartza auzoan, eta gero, zuhaitzak sartuko dituzten zelairako bidea hartuko dute. Aurrez ikusitakoaren arabera, 10:45 inguruan ekingo diote zuhaitzak landatzeari.

Udaleko Ingurumen batzordeko teknikari Rafa Ugartek esandakoaren arabera, 200 pago sartuko dituzte. Eta parte hartuko dutenei opariak emango dizkiete: umeei Zuhaitz Egunaren gaineko karpeta bana eta erretiratuak hemengo landareen gaineko liburu bana, errezetekin.




Irakeko gerraren kontrako bilkura

Iraken kontra egin gura duten erasoarengatik protestatzeko kale bilkura egin zuten martitzenean Seber Altuben. ESK, ELA, LAB eta ESK sindikatuek deitutako ekimena izan zen. Eta, sindikatu horietako ordezkariekin batera, bestelako herritarrak ere izan ziren. Aurrera begira, sindikatu horien artean sortutako plataformak dagoeneko deitu du beste bilkura bat. Hain justu ere, gerra hasten den egun berean kale bilkurara ateratzeko dei egin dute. Hain zuzen ere, Herriko Plazan izango da bilkura hori, 18:30ean. /U.M.

EKINTZA UGARI MARTXOAREN 8AN ARRASATEN

Joan den zapatuan, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan ekintza asko izan ziren herrian. Bezperan, egubakoitzean, ESK sindikatuak deituta kale bilkura egin zuten Seber Altuben. Zapatuan, berriz, Emakumearen Egunaren aldeko manifestazioa, artisau azoka eta Herri Anitza plataformaren prentsaurrekoa izan ziren. Emakumeen Nazioarteko Egunean aldarrikapen asko egiten dira, eta, urtero moduan, emakumeak kalera irten ziren euren eskubideen defentsan. *Gure eskubidea delako* leloa aukeratu zuten emakumeek zapatuko manifestaziorako. Era berean, artisau azoka egin zuten Seber Altube plazan. Eguraldia lagun, jende asko hurreratu zen azokara, bertan salgai zeuden produktuak ikusi edo erostera. Azoka berezia izan zen, emakumeek landutako produktuak jarri zituzten-eta salgai. Azkenik, Herri Anitza plataformako emakumeek ere bat egin zuten Emakumearen Nazioarteko Egunarekin. Emakumeen eskubideen alde lan egingo dutela esan zuten Herri Anitza plataformako emakumeek.



OIHAN VEGA

Manifestazioa Seber Altuben hasi zen, eta antolatzaileek adierazi zuten uste baino jende gehiagok hartu zuela parte.



OIHAN VEGA

ESK sindikatuak deituta, kale bilkura egin zuten egubakoitzean Seber Altuben.



OIHAN VEGA

Azokari jai giroa emateko bertso saioa izan zen eguerdi partean.



OIHAN VEGA

Herri Anitza plataformako emakumeek prentsaurrekoa egin zuten, eta berdintasuna gizarte osoaren arazo dela azpimarratu zuten, ez emakumeena bakarrik.



ARRASATE PRESS

Igoera faserako sailkatzeko, Kenci Arrasatek zapatuko norgehiagoka irabazteaz gain zortea lagun izan beharko du.

SASKIBALOIA

Kenci Arrasatek irabazi egin beharko du, eta Ursulinasek galtzeko errezatu

Igoera faserako azken txartela Kenci Arrasatek edo Ursulinasek eskuratuko dute

XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan Iker Zubiriaren mutilek Liga Txapelketako azken jardunaldia jokatu dute, eta azken partidua izateaz gain, garrantzitsuena ere izango da. Ursulinas eta Kenci Arrasate seigarren postuagatik jo eta ke dabilta lehian, eta oraingoz Ursulinasek du abantaila.

Igoera faserako zeintzuk sailkatuko diren ia-ia erabakita dago. Lehenengo sei postuetan dauden taldeek igoera fasea jokatu dute, baina seigarren postuan zein sailkatuko den oraindik ez dago erabakita. Ursulinasek edo Kenci Arrasatek beteko dute seigarren postua, eta oraingo asteburuan

erabakiko da hori. Ursulinas taldeak Antonio Erro y Eugi taldearen kontra jokatu beharko du. Kenci Arrasatek, berriz, Calasancioaren kontra neurtuko ditu indarrak. Hasiere baten, Ursulinasek kontrarioa Kenci Arrasateren kontrarioa baino gogorragoa da. Argi dago biak ere tentsio handiko norgehiagokak izango direla. Arrasatekoek zeingehiagoka irabazteaz gain, Ursulinas eta Antonio Erro y Eugi taldeek zer egingo duten zain egon beharko dute. Emozioz betetako asteburua izango da.

JOAN DEN ASTEAN, JUSTU-JUSTU

Kenci Arrasatek joan den astean eskuratutako garaipenari esker jarraitzen du igoera faserako sailkatzeko aukerekin. Arrasateko

taldeak 85-82 irabazi zion Santo Tomas Lizeoa taldeari. Emaitzak argi uzten duen moduan, zeingehiagoka parekatua izan zen, eta azken unera arte emozioa izan zen Iturripeko kantxan.

Lehenengo laurdenean gogor kantxaratu ziren donostiarrak. Partidua hasi eta berehala 10 puntuko aldea eskuratu zuten, eta lehenengo laurdenean eurak izan ziren aurretik. Arrasateko taldea bigarren laurdenean hasi zen norgehiagoka apur bat zuzentzen, baina hirugarren laurdenera arte ez zuten partidua berdintzerik lortu. Laugarren laurdenean mondragoetarrek zazpi puntuko aldea eskuratu zuten, eta donostiarrak aldea murriztu zuten arren, Arrasate nagusitu zen. Bihar, denboraldiko helburua dago jokoan.

Mondrak irabazi eta liderrak galdu: goiko postuak estutu egiten dira

Erregional mailako goiko postuak berrirori ere estu-estu daude. Mondrak balio handiko hiru puntu ekarri zituen Ilintxaren zelaitik (0-4); Zumaiakok, liderrak, hanka-sartze galanta egin zuen, Mutrikuren kontra galdu eta gero (0-2); Urolak, berriz, ez zuen kalerik egin. Hala, hiru taldeak gertu baino gertuago daude. Izan ere, Zumaiakok 50 puntu ditu, Urolak 49 eta Mondrak, 48.

Liderra, hortaz, bi puntura dago, eta oraindik zortzi partidua geratzen dira jokatzeko.

ILINTXAREN ZELAIAN MONDRA NAGUSI

Mondrak erraztasunez irabazi zuen Ilintxaren zelaian. Talde osoak erakutsi zuen maila polita, baina inor azpimarratzeko tan Jon Muruamendiaraz, Iker Lazpiur eta Jon Mondragón azpimarratuko ditugu: *Muruak* hiru

gol egin zituelako, dagoeneko 25 gol daramatza Arrasateko aurrelariak; Iker Lazpiurrek sekulako jokaldia egin eta gero baloia sare artera bidali zuelako; eta Jon Mondragónek ate azpian partidua biribila jokatu zuelako.

Oraingo asteburuan, seigarren postuan dagoen Ordizia etorriko da Atxabalpera. Mondrarendako beste partidua bat baino gehiago, beste final bat izango da.

FOTOKIROLA



Markel Blanco, Euskadiko Selektioarekin

Markel Blanco atleta arrasatearra Tarragonan jokatu den Eskola Arteko Espainiako Atletismo Txapelketan izango da oraingo asteburuan. Hamahiru urteko atleta arrasatearra Euskadiko Selektioarekin hartuko du parte txapelketan. Markelek 6.000 metroko proba korrituko du, eta Espainia mailako atleta onenekin neurtuko ditu indarrak. Markelendako lehenengo aldia da Euskadiko Selektioan parte hartzen duena, eta hori dagoeneko lorpen handia da.

PILOTA

Senior mailako pilotariak, ondo, bai Udaberri Txapelketan baita Debarroko Txapelketan ere

Senior mailako pilotariak entrenatzeko astirik ere ez dute, bi txapelketatan buru-belarri dabilta-eta. Udaberri Txapelketan, mondragoetarrek Añorgaren kontra jokatu zuten joan den zapatuan, eta arrasatearrak 10-22 nagusitu ziren. Martitzenean, berriz, Arrasatek Debarroko Txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuen Eskoriatzaren kontra. Seniorrak 22-18 nagusitu ziren, baina gazte mailakoek 19-22 galdu zuten. Datorren martitzenean, Debarroko Txapelketan, Oñatiko pilotarien kontra neurtuko dituzte indarrak.

ATLETISMOA

Maria Jose Gilek brontzea eskuratu zuen Europako beterano mailako txapelketan

Joan den asteburuan, beterano mailako Europako Atletismo Txapelketa jokatu zen Anoetan, eta 3.000 metroko lasterketan Maria Jose Gil mondragoetarra lasterketa polita egin eta hirugarren helmugaratu zen.

Gizonezkoetan, Javier Mentxaka zazpigarrena izan zen 3.000 metroko lasterketan eta Cesar Díez hamaseigarren iritsi zen helmugara. Domekan, atleta arrasatearra Ourensen jokatu den beteranoen mailako Espainiako Txapelketan izango dira.

MENDIA

Oraingo asteburuan Oulettes de Gaubera eski irteera egindo du Besaide Mendi Elkarteak

Oraingo asteburuan, Besaide Mendi Elkarteak antolatuta, mendi eski irteera egingo dute Oulettes de Gaubera. Oulettes de Gaube Frantziako Pirinioetan dago, Cauterets-en, hain zuzen ere. Zapatu goizean irtengo dira, eta domeka ilunkeran itzuli.

Horrez gain, bihar goizean asteroko irteera egingo dute Formigalera. Oraindik beste lau asteburu geratzen dira. Izenematea, Besaideren egoitzara, martitzenetan.

AGR Arrasate ez da gol bateko aldeagatik igoera faserako sailkatu

XABIER URZELAI

AGR Arrasatek Liga Txapelketa polita egin duen arren, azkenean, gol bateko aldeagatik ez da igoera faserako sailkatu. Mondragoetarrek eskuan izan zuten igoera faserako txartela, baina partiduko azken minutuetan urduri jokatzek gura baino min handiagoa egin zion Arrasateko taldeari. AGR Arrasate 26-24 nagusitu zen.

Partidua irabazita ere ez zen nahikoa izan, mondragoetarrek hiru goleko alde behar zuten-eta. Eta hiru gol baino gehiagoko errenta izan zuten, baina ez zuten jakin errenta horri eusten.

Partiduak amaiera tristea izan zuen Arrasatekoendako. Hasiera, baina, ilusioz betetakoa izan zen. Iturripeko harmailetan inoiz baino jende gehiago elkartu zen Arrasateko taldea animatzeko, eta taldeak eskertu egin zuen hori. Norgehiagoka hasiera parekatua izan zen, tentsio handikoa. Bi taldeetako inork ez zuen gura arriskatu, minutu asko geratzen ziren-eta aurretik. Hala, lehenengo zatia amaituta AGR Arrasatek bi goleko errenta zuen (13-11). Markagailuan aurretik zeuden arren, argi zegoen biga-



MIKEL ARANBURU

Arrasateko eskubaloioarendako gol batek ez du inoiz izan horrenbesteko baliorik.

rren zatian arrasatearrak legazpiarren defentsa apurtzen ahalegindu beharko zirela, markagailuan aurrera egitea zen-eta helburua.

Bigarren zatian mondragoetarrek ez ziren ondo hasi, eta legazpiarrek markagailuko alde murriztea lortu zuten. Bigarren zatiko hamabosgarren minutuan kanpotarrek zeingehiagoka berdintzea lortu zuten (19-19), baina berdinketa horrek arrasatearrak

esnatzeko balio izan zuen. Hobeto defendatuz eta erasoan min eginenez, mondragoetarrek aurrera egin zuten markagailuan. Azken minutuetan, baina, urduritasuna tarteko, hainbat hutsegite egin zituzten, eta Hegialdek alde txikituz (26-24). Arrasatek azken jokaldian gola egin zuen, baina epaileak balio barik utzi zuen.

Horrelakoetan berba guztiak soberan egoten dira. Eutsi goiari, lan polita egin duzue-eta.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Etxinai!	7-3
Fuxxion - Bikain Akademia	8-3
You Know! - Dribling.es.vg	1-3
Betrayer - Lasagabaster.	5-2

B MULTZOA

AC Surcos - Makanaki.	5-4
Goma-2 - Etxerat	6-7
Aurrera Bolie - Iritz Taberna	0-2
Koka Juniors - AT Celaya	3-5

PARTIDUAK

MARTXOAK 15, ZAPATUA. EPAILEAK

11:50:	Iritz Taberna - Koka Juniors.	Lasaga
13:00:	Saukelu Scream - Lasagabaster.	Koka
15:50:	Dribling - Betrayer.	Bikain Akademi
17:00:	Bikain Akad - You Know!	Betrayer
18:00:	Etxinai! - Fuxxion.	You Know!

MARTXOAK 16, DOMEKA

11:50:	Etxerat - Aurrera Bolie.	Makanaki
13:00:	Makanaki - Goma-2.	Aurrera Bolie

Atzeratuta: AC Surcos - AT Celaya.

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Saukelu Scream	4	2
2. Betrayer	4	2
3. Dribling.es.vg	3	2
4. Fuxxion	2	2
5. Lasagabaster	1	2
6. Etxinai!	1	2
7. You Know	1	2
8. Bikain Akademia	0	2

B MULTZOA

1. AC Surcos	4	2
2. Etxerat	4	2
3. AT Celaya	3	2
4. Iritz Taberna	3	2
5. Aurrera Bolie	2	2
6. Koka Juniors	0	2
7. Goma-2	0	2
8. Bikain Akademia	0	2

BIGARREN FASEKO LEHEN ZIGORRAK

YOU KNOW! ETA DRIBLING TALDEEN ARTEKO PARTIDUA ISTILUTSUA IZAN ZEN

Bigarren faseko bigarren jardunaldia ez zen lehen jardunaldia bezain lasaia izan. You Know! eta Dribling taldeek jokatu zuten norgehiagoka behar baino gogorragoa izan zen, eta jokaldi baten baino gehiagotan ika-mikak izan ziren. You Know! taldeko jokalaririk batek ostikada eman zion Dribling-eko jokalariri bati, eta zigortu egingo dute.

AC SURCOS ETA AT CELAYA TALDEEN ARTEKO PARTIDUA, ATZERATUTA

AC Surcos eta AT Celaya taldeen arteko partidua atzeratu egin dute, AC Surcos taldekoek horrela eskatuta. Badirudi B multzoko liderrak gura baino jokalaririk gutxiago dituela, asko min hartuta daude-eta. Hori dela eta, partidua atzeratzeko eskatu dute. Oraindik ez dute zehaztu noiz jokatuko duten partidu hori.

FOTOKIROLA



Eguaztenenean, Aritza Monasterioren eskutik, Andeak Arrasaten

Eguaztenean, Besaide Mendi Elkartek antolatuta, Aritza Monasteriok 2002ko Urrezko Pioletadiapositiba emanaldia egin zuen Arrasaten. Aritza Monasterio Perun bizi da, Andeetan, eta Huazar mendietako gidari da. Arrasaten egin zuen diapositiba emanaldian, Huayhuash-eko mendilerroaren gainean egin zuen berba. Azken bi urteotan Huayhuash-eko mendilerroko hainbat tontor eskalatu ditu Aritza Monasteriok, eta diapositiba emanaldia eskalada horien gainekoa izan zen.

Jende dezente animatu zen Peruko mendiak hurrarotik ezagutzera, eta espedizio horietan egingo dako argazki ikusgarriekin gozatzeko aukera izan zen.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ESKUBALDIA

Usurbil - Gatz Museoa Jakion	Gazteak. Azken fasea. Gaur. 19:30. Oiardo.
Arrate - Gatz Museoa Jakion	Gazteak. Azken fasea. Domeka. 11:45. Olaizaga.
Donibane - Arrasate	Gazteak. Fed. Kopa. Zapatua. 17:00. Donibane.

FUTBOLA

Mondra - Ordizia	Erregionala. Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Ilintxa - Mondra	Ohor. mail. gazteak. Zapatua. 16:30. Bikuña.
Antoniano - Arrasate	Kadeteak. Zapatua. 11:00. Zarautz.
Arrasate B - Aretxabaleta B	Big. mail. kad. Kopa. Zapatua. 12:15. Atxabalpe.
Arrasate - Aretxabaleta	Neskak. Kopa. Zapatuan. 10:00. Atxabalpe.

ERRUGBIA

Arrasate - Eibar	Seniorrak. Zapatua. 16:00. Garagartza.
Arrasate/Elorrio - Ordizia	Gazteak. Zapatua. 16:00. Elorrio.

Durango - Arrasate

Kadeteak. Zapatua. 12:00. Durango.

SASKIBALDIA

Calasancio - Kenci Arrasate	Seniorrak. Domeka. 12:15. Iribarren.
Andraitz - Kenci Arrasate	Junior. mail. mut. Zapatua. 16:00. Bikuña.
Kenci Arrasate - Joye. Ayestaran	Kadet. mail. mut. Zapatua. 12:00. Musakola.
Kenci Arrasate - San Patricio	Kadet. mail. nesk. Zapatua. 10:00. Musakola.
PILOTA (DEBARRO TXAPELKETA)	
Oñati - Arrasate	Gazteak. Martitzena. 19:00. Oñati.
Oñati - Arrasate	Seniorrak. Martitzena. 19:30. Oñati.

EMAITZAK

PILOTA

Udab. Txap. Senio.: Añorga - Arrasate.	10-22
Debarro. txap. Senio.: Arrasate-Eskoria.	22-18
Debarro. txap. Gaz.: Arrasate-Eskoria.	19-22

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 ☎ 943 71 27 93

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ☎ 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma ☎ 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

ANTZERKIA/ Antzerki jardunaldiak antolatu dituzte lamai tabernan, eta antzezleen lehiaketa prestatu gura dute

Lau antzezlan, ilusionista bat eta telebista parodia, lamai kafetegiko programazioan

IKER BARANDIARAN

lamai kafetegiak antzerki programazio mardula antolatu du. Gaur, egubakoitza, hasiko da eta apirilaren 25a arte egubakoitzero antzezlanak egingo dituzte. Ikuskizun guztiak 00:00etan izango dira, eta doan. Antzezleen Lehiaketa ere prestatzen dabilta.

Lamai kafetegiak antzerki egitarau mardula antolatu du datozen egubakoitzetarako. Gaurtik hasi eta apirilaren 25era arte, egubakoitzero antzerki ikuskizunak antolatu dituzte. Antzezlan guztiak 00:00etan izango dira, doan.

Orain dela hiru urte zabaldu zuten lamai kafetegi eta antzerki ikuskizunak antolatzeke ohitura hartu dute. Ikuskizunek oso harrera ona izan dute, eta aurrean jauzia eman gura izan dute.

'ANA BOTTLE', AURKEZLE

Ikuskizunek 45 minutu iraungo dute. Egubakoitzero, *Ana Bottle*-ek (Patricia Franco antzezlea) aurkezle lanak egingo ditu.

Gaur, egubakoitza, Gasteiz-

ko Kuku Bazar taldeak *Tapin Tapon* izeneko ikuskizuna eskainiko du. Umore garratzez jositako lan horretan dena da erlatiboa.

Martxoaren 21ean, ostera, Gasteizko Detritus antzerki taldeak *Las punkis también lloran* lana eskainiko du. Antzerkiko eta musikako elementuez baliatuta, erritmo biziko bakarriketara egingo dute.

Martxoaren 28an, Bilboko talde batek *100 años de perdón* izeneko antzerki-kafe saioa eskainiko du. Lapur batzuk, gura barik, lamai tabernan sartuko dira.

Apirilaren 4an, Madrilgo Torpedolevel neska taldeak *Las chicas serias no gustan* izeneko ikuskizuna antzeztuko du. Umore garratzeko bakarriketak izango dira. Apirilaren 11n, Jon Zabal ilusionistak hainbat truku egingo ditu. Eta Aste Santu ostean, apirilaren 25ean, Sobradun taldeko antzezle batzuek *Max Dotado Show* saioa antzeztuko dute.

Iamaiko arduradunek profesionalak ez diren Antzezle Lehiaketa antolatu gura dute. Interesatuok, bidali curriculumak: Kontzezino 14 (baxua).



Irudian, Kuku Bazar antzerki taldeko aktoreak *Tapin Tapon* lana antzezten. Gaur lamain egongo dira.

ELKARRIZKETA

UNAI URRETZO/TRONBOI JOTZAILEA

"Alberto anaia nagusiari esker, neu ere tronboia jotzen zaletu nintzen"

ARRASATE IRRATIA

Unai Urretxo arrasatearra Bostonen bizi da aspaldian. Otsailan Euskal Herrira etorri zen, eta Bilboko Udal Bandarekin kontzertua eman zuen. Arrasate Irratian elkarrizketa egin zioten, eta guk paperera ekarri dugu.

Noiz hasi zinen tronboia jotzen eta zelako bilakaera izan duzu?

8 urterekin Arrasate Musikalen ikasten hasi nintzen, eta 12 urterekin tronboia aukeratu nuen. Alberto anaiarekin eta Francisco Jabier Rosariorekin ikasi nuen, eta horren ondoren, ikasketak Donostian bukatu nituen. Geroago, AEBetara jo nuen, Bostonen master bat egin nuen eta egun diplomatura egin nabil. Bostongo Unibertsitatean ikasteaz gain, eskolak ematen ditut eta Bostongo Orkestrarekin jotzen dut.

"Musika ikasten ari diren gazteek musika apreziatzen ikas dezatela. Hori da gauza onena"

Zer moduz bizi zara Bostonen?

Oso ondo. Oso hiri europarra da. Egia esanda, musika kultura handia dago, eta zentzu guztietan ikasten nabil. Arrasatearrak eta, oro har, euskaldun gehiago daude Bostonen. Poztekoa izaten da arrasatear horiek noizbehinka ikustea.

Musikari profesional bihurtu nahiko zenuke, ezta?

Bai, baina ez da erraza. Artista guztiak pobreak gara, eta ahalgin guztiak egingo ditut noizbait

musikarekin lotutako behin betiko lanpostua lortzeko. Euskal Herrian halako lanik aurkitzeko aukerarik balego, hobeto. Bestela, beste edozein lekutan egingo nuke lan. Musikari izateko denbora luzea eta diru asko inbertitu beharra dago, baina horren truke gauza onak jasotzen dira. Hori oso argi eduki behar da.

Zergatik aukeratu zenuen tronboia?

Anaia nagusia, Alberto, tronboia jotzen hasi zen. Txikitan, etxean ikusi eta entzun egiten nuen, eta neu ere zaletu egin nintzen. Beste lehengusu bat, Mikel Arkauz, ere tronboia jotzen hasi zen, eta egun Holandan dagó tronboi ikasketak egiten.

Musika ikasten dutenei zer esango zenieke?

Musika jo dezatela, musika entzun dezatela eta asko irakur dezatela. Eta, batez ere, musika estimatzen ikas dezatela. Gogor egin beharko dute lan, baina oso pozgarria da.



LABUR

**Txatxilipurdik
'Larunblai' antolatu
du bihar, zapatua**

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai* antolatu du Herriko Plazan. 11:00etatik 13:30era *Globoflexia* lantegia egingo dute eta Txatxilipurdiko begiraleak izango dituzte lagun.

**Bihar, zapatua,
Ludoteka Ibiltaria
egongo da Uribarrin**

Bihar, zapatua, Ludoteka Ibiltaria egongo da Uribarriko Usaetxe plazan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira, 11:00etatik 13:30era bitartean. Txatxilipurdi ibiliko da umeak eta gaztetxoak zaintzen.

**'Bahia Naufragio'
ikuskizuna Jai-Zale
tabernan**

Etzi, domeka, *Bahia Naufragio* ikuskizuna, Jai-Zale tabernan. Musika, poesia eta margolanak uztartuko ditu saioak, eta 21:00etan izango da.

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak kideak behar ditu aurrera jarraitzeko

IKER BARANDIARAN

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak herritarrei dei egin gura die euren taldearekin bat egiteko. Kontua da konpartsa hori errelebu faltan dagoela; hala, kide berriak lortzen ez badituzte, Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa bertan behera utziko dute.

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsak herritarrei dei egin die taldearekin bat egiteko. Konpartsa horretako partaideak errelebu faltan daude eta taldean lagun gehiago behar dituzte. Hemendik gutxira konpartsak batzarra deituko du, eta hortik aurrera, epe zehatz baten laguntzarik jasotzen ez badute, konpartsa bertan behera utziko dutela iragarri dute. Edozelan ere, interesatuei aukera eman gura diete, eta hala izango balitz, aurtengo San Juanetarako taldea osatu gurako lukete.

1985ETIK GAUR EGUNERA ARTE

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa 1985ean eratu zuten, eta 1985eko San Juanetan Udalak agindutako erraldoi eta kilikiak estreinatu zituzten. Orduetik



ARRASATE PRESS

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa herriko jaietako ezinbesteko osagaia da.

hona, urtero-urtero, San Juanetan, Santamasetan, Aratusteetan eta Maritxu Kajoi egunean kalera irten izan dira. Horrez gain, noizbehinka beste herri batzuetako jaietara ere joan izan dira.


Gaur egun taldean hamar lagun daude, eta lau erraldoi eta zortzi kiliki dituzte. Horregatik,

jende gehiago behar dute. Konpartsa horretako partaide gazteenak 18 urte ditu eta nagusienak, 40. Konpartsan parte hartzeko deia 17 urtetik gorako neska eta mutilei egin diete.

"Erraldoi eta kilikiak erabiltzeko ez da ezer berezirik jakin behar. Praktika apur bat beste-

rik ez da behar. Erabiltzen ikasi eta dantza apur bat egin behar da, baina ez da dantzaria izan behar. Hori bai, indar apur bat behar da", azaldu ziguten.

Horrez gainera, jaietan beste modu baten parte hartzeko gogoia eduki behar da. Eta oso entsegu gutxi egiten dituzte.



WERU

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila

BEHEKODENDATIK

Ines Mari de Tena

ELKORO EXPERT DENDAKUE

XABIER URZELAI

Elkoro Expert dendie –Arbolape-
tan dauena– oin dala hamar
urte zabaldu euen. Ines da
dendako arduradune, eta
arratsaldietan ibiltzen da han
lanien. Goixetan etxekoandre
ibiltzen da, eta seguru familixiek
eskerketan dauela. Lana bukatu-
takuen, musikie entzun edo
irakurri egitten dau gustora.

Amets bat?

- Gerrarik ez egotie.
- Eta amets txar bat?**
- Gerrie egotie.
- Egin dozun azken biajie?**
- Meridara, udan.
- Txartel horixe, zeñei?**
- Bushei eta Aznarrei.
- Eta gorrixe?**
- Horrei bixoi be.
- Pelikula bat? Liburu bat?**

Musika talde bat?

*Gladiator / Los puentes de Madi-
son / Alabiek eta bixok Alex Uba-
go entzuten dogu sarri.*

Drogak legalizauko zittukie?

Baietz uste dot.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

**Tabernetako txikiteue ala
diskotekak?**

Txikiteuen gustorago.

Ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Eta faltan?

Neuretako denpora librie.

**Ze gustetan jatzu Mondra-
guetik?**

Monterron parkie.

**Alkate izengo bazitze, ze
hobetuko zeuke?**

Falta dien gauzak. Mondraguen
aparkamentuek, berdeguniek eta
garbittasune falta die.

**Eta lehendakari izengo bazi-
tze?**

Pakien alde egingo neuke lan.

Bizio bat?

Txokolatie.

**Etxeko zapatillak ala zapa-
tak?**

Etxeko zapatillak.

**Ezagutu dozun pertsona inte-
resante bat?**

Neure lankidie.



*“Herrixen berdegune
gutxi dauz. Seberon,
adibidez, harri asko
ikusten dot, eta tristie
egitten jat”*

**Eta ezagutu nahiko zeunke-
ena?**

Nobel saritturen bat-edo.

**Tranpan ibilttekotan nor-
baittekin, zeñekin?**

Iñokin be ez.

**Bizi izetera hiri batera jue-
tekotan, nora?**

Donostiara.

Telebisiñoko programa bat?

C.S.I.

Eta irratikue?

Anda ya! programie entzuten
dot gustora, Los 40 Principales
irratixen.

Zertan gastauko zeuke dirue?

Biajetan.

Saltzen Expert-uek zarie?

Ez dakit espertuek izengo

*“Egixe da dendan
danetik apur bat
daukogule; txikiñe
danez, ezin tresna
haundirik saldu”*

garen, baiñe ahaleginketan gare,
behintzet.

Ze saltzen dozue gehixen?

Bisuterixie.

**Dendan, bestiek beste, irra-
tixek eta eraztunek saltzen dittu-
zue. Gauza diferentiek die, ba.**

Bai, etxetresna haundixek sal-
tzeko denda txikiñe zala kontura-
tu gitzen, eta materixal haundirik
ezin geuela sartu. Beste gauza
batzuk saltzen hasi gitzen, eta gus-
tora gabitz.

Ze saltzen dozue gustoren?

Gustoren saltzen dotena bisu-
terixie da.


**Eta zuk zeuk ze erosiko zeu-
ke?**

Horixe beroi, bisuterixie.

NIREBIDAIAHURA/ Joxan García Zapiain

Afrikara / 2002ko martxotik irailera arte


Zimbawetik Zambiarako bidea hartu zuen Joxanek. Zambeze ibaian zegoen uharte baten geratu zen. Aste-
bete egin zuen han, lasai-lasai, atsedean hartzen. Uhar-
tera gauzez iritsi zen, eta hango bizilagunei uretan
bainatzerik ba ote zegoen galdetu zien. Herritarrek baietz
esan zioten, baina hurrengo goizerako utzi zuen, nekatuta
zegoen-eta. Goizaldean, baina, oiuhu batzuek esnatu zuten
Joxan. Kanpadendatik irten, eta
ondo-ondoan herritarrak kro-
kodilo bat uxatzen ikusi zituen.
Krokodiloak ura edatera joan
berri zen behi bati eraso egin
zion, baina herritarrak ez zuten
behi barik geratzeko asmorik.
“Aurreko gauean bainua lasai
hartzeko esan zidaten!”



*“Zizareak
neramatzan
poltsan, eta
hori gosaltzen
nuen”*

Uhartean astebete egin eta
gero, Lusakarako bidea hartu
zuen. Bidaia trenez egin zuen,
36 orduko bidaia, eta zelako
bidaia, gainera. Trenean zihoa-
la, komunera joateko beharra
sentitu, eta komuneko atea itxi
zuenean harrapatuta geratu zela
konturatu zen. “Help me!”
(lagundu) behin eta berriro oiuhu-
katuta ere, inork ez zion entzu-
ten, eta gorputza leihotik atera
eta aurreko kristalari golpe joka
ibili zen. Noizbehinka aurrez
aurre zetozen zuhaitzei iskin
egin, eta ordubete oihuka eta kolpeka ibili eta gero, azke-
nean atera zuten komunetik. Bidaiak nekagarriak izaten
ziren, eta jan ere gaizki jaten zuen: “Zizareak gosaltzen nituen.
Afrikako tribuek hori jaten bazuten, nik zergatik ez? Ziza-
reak tribu batekoei erosi nizkien, eta ez neukan botatzeko
asmorik. Frijituta gozoak zeuden, baina gordinak...”. South
Luangwan ere ederra pasatu zitzaion: Joxan herrixka bate-
ra iritsi eta bertakoak aizkorekin, odolez zikinduta, eta ulu-
ka ikusi zituen. Beldurtu egin zen Joxan: “Bada, ‘ze demon-
tre gertatzen da hemen?’, galdetu nion neure buruari. Itxu-
ra beldurgarria zuten”. Kontua da elefante bat zulo batera
erori eta herritarrek elefantea hiltzea erabaki zutela. Odo-
la eta okela zatiak elefantearenak ziren, eta bazegoen zer
ospatu. Datorren astean, bidaia harrigarri honen azken kapi-
tulia kontatuko dizuegu, eta badago zer kontatu.

XABIER URZELAI



Krokodiloak behia hil zuen, baina esku-hutsik joan zen.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

**BASATI
TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

Tel. 943 711752

ZAHARREN ETXETIK



Amaia Umerez eta Monika Arriaran dira Iturbide egoitzako begiraleak.

IKER BARANDIARAN

“Egoiliarrek gure lana eskertzen dute, eta hori eramaten dugu etxera”

ARRASATE IRRATIA

Amaia Umerez eta Monika Arriaran Iturbide egoitzako begiraleak dira. Monika, goizez, eta Amaia, arratsaldez, biak arduratzen dira Iturbide egoitzan bizi diren erretiratuen aisialdia antolatzeaz eta haiei laguntzeaz. Aratuste-martitzenean Arrasate Irratian izan ziren biak, eta guk elkarriketa hori paperera ekarri dugu.

Zein ekintza egiten dituzue goizetan?

09:15ean hasten gara. Lehenik eta behin, ordu erdiz gimnasia orokorra egiten dugu, burutik hasita hanketaraino, dena lantzen dugu; horren ostean, oroimen lantegia egiten dugu, izenak eta koloreak gogoratzeko ariketa batzuekin; horiek bukatuta, eskulan eta pintura lantegia egiten dugu. Oso gustuko dute marraztea eta margotzea; 11:30ean, ostera, egunkaria irakurtzen diegu; eta gero, horren gaineko tertulia egiten dugu. Horren ondoren, nor bere solairura eramaten dugu.

Arratsaldeetan, berriz, egunaren arabera hainbat ekintza egiten dituzue, ezta?

Bai, hala da. Astegunetan, 15:00etatik 16:00etara dementzia dutenekin psikoestimulazioa lantzen dugu; hau da, hizkiak, koloreak eta irudiak lantzen ditugu; 16:30ean, beste ekintza mota

batzuk egiten ditugu: astelehenean, eskulanak egiten ditugu. Marrazkiak egin, gauzak moztu, borlak egin...; martitzenetan, oinarritzko ariketa fisikoa egiten dugu, baloiekin jolasten gara eta psikomotrizitate lantzen dugu; eguaztenetan, herri kantuak abesten ditugu, eta askok hartzen dute parte; egunetan, oroimen lantegia izaten dugu, eta izenak lantzen ditugu, asmakizunak...; bukatzeko, egubakoitzetan, bingoan jokatzeko dugu. Horrek arrakasta izugarria du. Bingoa edo lerroa kantatzen duenari Abaroan astelehenean kafea hartzeko txartela ematen diogu.

Antolatzen dituzuen ekitaldiak beharrezkotzat jotzen dituzue?

Bai, aisialdirako denbora luzea daukate, eta noizbait ekin tzaren batek kale egiten badu, horren falta igartzen dute. Eta euren osasunari dagokionez, lantegi horiek ezinbestekoak dira.

Gogorra da zuen lana?

Batzuetan bai, baina gure lana bihotzez eskertzen dute, eta hori eramaten dugu etxera.

Iturbiden ez dago aspertzirik

09:00etatik eguerdira arte ariketa fisikoa, lantegiak, egunkari irakurketa, tertulia eta bestelakoak egiten dituzte.

Arratsaldeetan, ostera, egunaren arabera eskulanak, ariketa fisikoa, herri kantuak, oroimen lantegia eta bingoa izaten dituzte. Arrakasta handien bingoak eta herri kantuak daukate.

LABUR

Apirilaren 12an, 1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute

Apirilaren 12an, 1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute. 13:00etan meza izango dute San Juan Bautista elizan. Mezaren ondoren, bazkaria egingo dute Musakola Hostalean. Interesatuak apirilaren 5a baino lehenago eman behar dute izena. Horretarako, Hire liburu dendara edo Begoña lurrindegira jo besterik ez dago, eta 15 euro ordaindu.

Jabetza horizontalaren eta jabeen arteko harremanaren gaineko berbaldia Abaroan

Martitzenean, martxoaren 18an, berbaldia egingo dute Abaroa erretiratuen elkarteko 5. aretoan. 18:30ean izango da eta berbaldiaren leloa honako hau izango da: *Jabetza horizontala eta jabeen arteko harremanak.*

Berbaldia Arantxa Gabarainek egingo du eta sarrera doan izango da, beti egiten duten moduan.



Eguraldi onarekin, paseora

Azken egunotan egin duen eguraldi ederrarekin, hotzak alde batera utzi ditugun honetan, herritar asko eta asko kalera irten dira eguzkia hartu eta paseatzera. Horien artean, erretiratuak dira nagusi, aisialdirako denbora luzean dutelako, jakina. Herriko kaleetatik jende mordo pasean dabil. Bestalde, Arrasate eta Aretxabaleta arteko bidean erretiratu asko dabil, baita Garagartzako bidean ere. Orrialde honetan behin baino gehiagotan esan dugu paseatzea oso osasuntsua dela, eta eguraldiak laguntzen duen bitartean, ekin! /I.B.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Gorka ileapaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Asteleheneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

arbolapeta





ARRASATE
Iraitz Sarabia
Martxoaren 13an, 2 urte.
Zorionak! Isabelen partetik.



ARRASATE
Aratz Arsuaga
Martxoaren 14an, 5 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Julen Cucalón
Martxoaren 8an, 6 urte.
Zorionak! Aita, ama eta Jennifer.



ARRASATE
Saioa Ilarduya
Martxoaren 12an, 19 urte.
Zorionak! Cobi koadrilakoak.




ARRASATE
Nerea Erdabide
Martxoaren 8an, 14 urte.
Zorionak! Koadrilaren partetik.



ARRASATE
Uxue Ezpeleta
Martxoaren 11n, 4 urte.
Zorionak! Amets, Ibai eta etxeokak.



ARRASATE
Lourdes Mendia
Martxoaren 15ean, 30 urte.
Zorionak! Senarraren partetik.



ARRASATE
Jose Antonio Zubillaga
Martxoaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoien partetik.



ARRASATE
Ander Arregi
Martxoaren 15ean, 6 urte.
Zorionak! Aita, ama, Julen eta Xabier.



ARRASATE
Aitziber Bilbao
Martxoaren 13an, 22 urte.
Zorionak! Koadrilakoien partetik.



ARRASATE
Leire Presa
Martxoaren 13an, 9 urte.
Zorionak! Gorka, gurasoak eta Amparo.




ARRASATE
Joseba Garate
Martxoaren 21ean, 6 urte.
Zorionak! Gurasoen eta aiton-amonen partetik.



ARRASATE
Ander Ezkurra
Martxoaren 14an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maite Larred
Martxoaren 19an, 22 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Amaia Iriarte
Martxoaren 9an, 25 urte.
Zorionak, *Takolo!* Koadrilakoien partetik.



ARRASATE
Itziar Ugarte
Martxoaren 11n, 24 urte.
Zorionak, *Rubi!* Koadrilakoien partetik.



ARRASATE
Mikel Usobiaga
Martxoaren 12an, 13 urte.
Zorionak! Aita, ama, An eta koadrilakoak.



ARRASATE
Felix Lizundia
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoien partetik.



ARRASATE
Nerea Sánchez
Martxoaren 13an, 14 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.




ARRASATE
Julen Paredes
Martxoaren 17an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jou Santiago
Martxoaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Mikel, Emi eta Muxibar.



ARRASATE
Elena Herrarte
Martxoaren 19an, urtebetetzea. Zorionak! TMT.



ARETXAGAZETA
Iratxe Bengoa
Martxoaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Lankideen partetik.



ARRASATE
Josu San Miguel
Martxoaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoien partetik.



ARRASATE
Danel Arrizabalaga
Martxoaren 20an, 11 urte.
Zorionak eta muxu handibat, etxeokien partetik.



ARRASATE
Gaizka Murgoitio
Martxoaren 12an, 24 urte.
Zorionak, *Txipiron!* Koadrilakoak.



ARRASATE
Jon Ajuria
Martxoaren 14an, 24 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.
It's nice to be nice.



ARRASATE
Iker Ullibarri
Martxoaren 14an, 24 urte.
Zorionak! Ainho eta Itzi.



ARRASATE
Pedro Olmo
Martxoaren 18an, 24 urte.
Zorionak! Leire eta familia.

Adi! Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zein auzotan dago monumentu berezi hori?
Arrastoa: auzo horretako jaiak San Isidrotan ospatzen dituzte.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESek asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Skip detergentea
14 ontzitxo

3,90€ 649 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MILAGROS BEITIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mila!
Galderen erantzun zuzena:
Aldai.

ARRASATEKOHISTORIA

Joakin Arana Ezpeleta
'Loramendi'

JON ANDER RAMOS

Bedoña elizateko Mendibitsu baserrian jaio zen *Loramendi*, 1907an.

Gurasoak baserritar jator bi ziren: Leokadio eta Eulalia.

13 urterekin, 1920an, kaputxinoen Altsasuko apaiztegiari sartu zen. Han, 1925eko udara bitartean, Humanitate ikasketak egin zituen, bost urte. Hurrengo urtean nobiziatua bukatu zuen, eta botoak ere egin zituen. Bien bitartean, euskara ia erabat galdu zuen *Loramendi*-k.

Hondarribiko komentuan egin zituen Filosofiako hiru urte eta Lizarran Teologiako lehenengo bi urteak; ikasketen gainerako urteak Iruñean egin zituen.

Errepublikari etorri zen geroago. Sasoi arriskutsua izan zen erlijiosoendako eta gainerako euskaldunendako. Giro hartan hasi zen *Loramendi* olerkigintzan lanean, eta euskararekiko eta aberriarekiko maitasuna garbi eta ozen adierazi zuen.

Zenbait lehiaketatan hartu zuen parte *Loramendi*-k; besteak beste, Euskal Olerti

Euskararekiko eta aberriarekiko maitasuna argi eta ozen adierazi zuen 'Loramendi'-k

Bizitza laburra izan zuen Arrasateko olerkariak, baina ideia eta edertasunez betea

Egunaren saria irabazi zuen eta Zilarrezko Haritz Adarra eman zioten. Eta *Zeruko Argia* aldizkarian lan egin zuen.

Honako hauek dira *Loramendi*-k egindako poesia batzuen izenburuak: *Enada beltza*, *Barruntza leioan* eta *Arrantzalienen arrats otoiza*.

Iruñean zegoela gaixotu egin zen, eta egun gutxira peritonitisak jota hil zen,



ARTXIBOA

26 urte besterik ez zuela hil zen Joakin Arana Ezpeleta *Loramendi*.

1933ko martxoaren 23an, diakono egiteko zegoela; izendatu baino 23 egun lehena-go, hain zuzen ere.

Erljioso handia izan zen *Loramendi*, abade izateko

irrikatzen zegoena.

Baina, era berean, zoritxarreko poeta ere izan zen *Loramendi*. Izan ere, bizitza laburra izan zuen, baina, hori bai, ideia eta edertasunez betea.

Bere poetikan honako hau azaldu zuen: bakandutako baserrietako giroa, natura oparoa, Jainkoaren ontasunak animalietan zuen isla, landareetan, lurrean...

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko martxoaren 14a / 57. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Zenbait abere-buru kalteak sortzen dabilta mendian

UBANE MADERA

Ganaduak Aramaioko basoetan kalteak egiten dituela-eta, ganaduzaleei oharra bidali die Udalak. Ganadua behar bezala zaintzeko eskatzen die.

Udalaren oharrean esaten dutenez, zuhaitzak landatu dituzten udal mendietara eta lursail partikularretara sartu izan da ganadua urtetan. Are gehiago, hesiekin itxitura eginda zuten lursailetatik aterata behar izan dituzte abere-buruak behin baino gehiagotan. Batez ere aurtengo neguan.

Kontua da abereek kalteak sortzen dituztela sartzen diren leku horietan: landareen kimuak jaten dituzte, landareak zapaltzen dituzte... Eta Aramaioko Udalak kexuak jaso ditu horregatik. Gainera, zuhaitz landatze horiek duten balioa kontuan hartu behar dela dio Udalak.

ABISUA, ETA GERO ISUNA


Horregatik guztiagatik, Udalak uste du "ez dela legezkoa hainbat ganadu jabek duten jokoera, euren abere-buruak besteen lursailetan sartzen uzteagatik".



Zuhaitz horietako batzuk Zuhaitz Egunean landatzen dituzte.

Hori dela eta, Udalak abere jabeen euren aziendak ondo zaintzeko eskatu die ohar baten bitartez, "zuhaitz-landaketetan sar ez daitezten". Gainera, jakinarazi die eskatutakoa bete ezean "Aramaioko Udalak neurri zehatzak

hartu beharko dituela eta Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuarekin batera gaur egun indarrean dagoen Mendietako Foru Araua betearaziko duela, eta, hortaz, han zehazten diren isunak eta zigorrak ezarri".



Emakumeen aldeko ekimenak

Ondo asko ospatu zuten Emakumearen Eguna Aramaion. Itur Zuri elkarteak GOITBri esandakoaren arabera, gustura gertatu dira jendearen parte-hartzearekin. Euren esanetan, argi dago emakumeak aurrera doazela, eta horrelako ekimenak antolatzea onuragarria da. Argazkian kafea eta pastak hartzen harrapatu ditugu, eguneko filma ikusi aurretik.

HERRITARRENHITZA/Yago Goronaeta • Langilea

Michael Jackson dela-eta

Akaso joan den asteko astelehenean ikusiko zenuten telebistan azkenaldian prentsa orokorraren atentzioa bereganatzen duen aurpegi berezidun animalia hori. Ia naturaz gaindiko munstro antzeko horrek sortu duen ikusmira bere aberastasuna bezain neurri kanpoko da.

Bere eguneroko bizimoduaren zati bat erakusten zuen erreportajearen, bere medio naturalean ikusi ahal izan genuen; *Neverland* izeneko jolasparkean, zuhaitz zahar bat, hori guzti hori bere sakelatik eta eskura ordainduta.

Ume arima zuela kontatu gura izan zigun, akaso sekula ezin izan delako ume izan.

Sakrifizio horrek gizarte honetan asko miresten den zera eman zion: ospea, dirua eta talentua. Irabazlea da, baina, oso prezio garestiaren truke. Zelanbait, ahul dagoela jakinda, Michael Jacksonek hori erakutsi gura izan zuen, modu patetikoan, pisu hori kendu gura izango balu moduan edo akaso zerbaitetaz konbentzitu gura izango bagintu moduan.

Askok gustuko izan zituzten bestelako ankerkeriez gain, zein zorigaitzokoa den erakutsi



"Sortu zuen gizarteak berak baztertu egin du"

zuen, izan ere, umetan gauza material guztiak izan bazituen ere, afektibotasunari dagokionez, gabezia handiak izan ditu txikitatik.

Erreportaje osoan zehar, bera eta esaten zuen gauza bakoitza inguratzen zuen bakardade aura igarri nuen.

Ziur nengoen, baita ere, dagoeneko lortu ez badu ere, duda barik laster FREAKS-en rankinean sartuko dela horri esker, jendearen gozamenerako. Erreportajearekin ez nau hobea denaz konbentzitu, baina, nire

errespetua merezi du.

Dirudienez, gizonetzko horrek txikitatik egin du berarengandik espero zutena. Onena izateko hezi zuten. Bere kasua muturrekoa da. Baina zein punturaino? Zenbat gurasok behartzen dituzte euren seme-alabak onenak izatera norberaren harrokeriarengatik?

Jende askok dio Michael gaixorik dagoela, baliteke, baina, gizarte honek izan gura duena eta benetan dena erakutsi du. Frankeinsteinen munstroaren moduan, sortu zuen gizarteak berak baztertu egin du, eta nik neuk nahiago ditut munstroak, nahiz eta akatsak izan, zintzoagoak izan ohi direlako.

LABUR

Fusilatutakoen gaineko informazio bila dabilta

36ko gerran fusilatutako edo desagertutako senideen gorpuen bila dabilta zenbait senide. Horien artean, Juan Larrea Lacruz antzuolarraren senideak ere badira. Kontua da antzuolarraren senideei orain dela urte dezente emandako informazioaren arabera, Juan Larrea Lacruz Aramaioren eta Legutianoren arteko arakaren batera bota zutela, fusilatu eta gero. Baina oraindik ezin izan dute haren gorpua berreskuratzea. Hori dela eta, norbaitek zerbait gogoratu gero, Aramaioko edo Arrasateko udaltxerara joateko eskatu gura diote.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629.54.59.23

OHARRAK

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK

Gogor ibili dira azkeneko partiduetan Bañera elkarte-ko hiru taldeak. Hirurek garaipena ekarri dute etxera, eta ez edozelakoa, gainera: gazte mailako taldeak 2-6 irabazi zion Cafeteria Atenea taldeari, Kopa Txapelketako aurreneko partiduan; kadete mailako mutilek 11-3 irabazi zioten El Campillo-ri; eta neskek 10-2 nagusitu ziren CD Aurreraren kontra.

Bihar, berriz, gazte mailako taldeak Aramaion jokatu du, 11:30ean, Izarra Gorri taldearen kontra; kadete mailako mutilek Abetxukon dute partidua, 10:00etan, Baro-Caloren kontra; eta neskek Jesus Obreron jokatu dute, 11:30ean, Jesus Obreroren kontra.

ZINEMA

101 Dálmatas 2 filma emango dute.

1936KO GERRA DELA-ETA

1936ko gerran desagertutakoen eta fusilatutakoen omenez, besteak beste, erakusketa izango da Aramaion, maiatzaren 4an, Sastiñan.


GIZARTEA

Hamalau izenarekin aurkeztu zuten herriko talde ezkertiar berria

Gernika Deialdiarekin bat egin ez, Hamalau izeneko taldea sortu dute Aramaion. Domekan egin zuten aurkezpena, besteak beste, herriko trikitilariak, bertsoariak eta txalapartariak lagunduta. Ekitaldian adierazitakoaren arabera, Hamalau izena ipini diote talde horri, Aramaiok dituen 14 auzoak aintzat hartu dituztelako. Era berean, taldearen nondik norakoak azaltzen dituen manifestua irakurri zuten ekitaldian. Besteak beste, Euskal Herriak urtetan jasan dituen erasoak salatu zituzten manifestuan, baina, etorkizunari begira, eta Hamalau moduko taldeei esker egoera latz hori aldatzeko aukera badagoela ere adierazi zuten. Manifestu berezia izan zen, olerki modukoa.

LAU PUNTU

Lau ideia nagusitan oinarritu dute Hamalau plataforma: ideia guztien errespetua, autodeterminazio eskubidea, eta euskara defenda-



tzea. Hori guztiori ikuspuntu ezkertiarretik hartuta. Hain zuzen ere, lau puntu horiekin bat eginen dituen herritarrei taldean parte hartzeko deia zabaldu zieten domekako ekitaldian. Eta, ekitaldia-oren ostean herritar dezentek eman zuten plataformaren aldeko atxikimendua.

Antolatzaileen arabera, ezkertiar izatea ezinbestekoa da plataformak defenditzen dituen lau puntuak onartzeko. Euskal

Herriaren aurka egiten dabilzan erasoak, batez ere, ezkertiarren kontrakoak direla-eta, ezker abertzaleak laguntza berezia behar duela ere gaineratu zuten. Hain justu, taldeko kide Juanito Sazarren esanetan, "herriaren bizia nahiaren zerbait da" talde berria. "Alde guztietatik itotzen hasita gaude, baldintza mordoa daude, gero eta muga gehiago, batez ere lege aldetik eta indar errepresiboen aldetik".

BOTEPRONTOAN/ Arantza Uriarte · Aramaioko Gazte Abesbatzako zuzendaria

"Musikak, poztasun handia emateaz gain, pertsona moduan aberastu egiten zaitu"

Gazte Abesbatza sortu berri da. Arantza Uriarte zuzendariaren gidaritzapean dihardute gazte abeslariak. Hain justu, Arantzarekin berbetan guran gara, taldearen berri jakin guran. Arantza arrasatearra da. Esperientzia zabala du abeslari moduan: Bilboko Koru Elkartearen abesten du, Arrasateko parrokiako abesbatzan parte hartzen du (emakume taldearen zuzendaria da), bakarlari moduan jarduten du eta kantu irakaslea da.

Zelan iritsi zara Aramaiora? Aramaion denbora zeramatzen gazte abesbatza sortu nahian, gero, nagusien abesbatzarako harrobia egiteko. Leku askotan ibili ziren norbaiten bila eta azkenean niregana etorri ziren Gurutze Uribarren organo-jolearen bitartez. Baiezkia eman nien, baina, baldintza batzuekin: beste konpromiso batzuk ditut, saioak... Haien arabera etorri ahal izango nintzen Aramaiora. Horrela, lanean hasi ginen, iraila-urria aldera. Gabonetarako kantuak prestatzen hasi ginen. Eta, Olentzero egunean abestu genuen. Uste dut ondo atera zela. Jendea harritu egin zen. Ez zuen espero horren denbora laburrean horrela abesteko gauza izango zirenik.



"Abesbatzan parte hartzeko abesteko gogoia besterik ez da behar; beste guztia nik erakusten diet"

Eta, orain ere lanean segitzen dugu. Asmoa da maiatzean Arrasateko topaketetan parte hartzea. Eta, topaketarik ez bada, ikasturte bukaeran zerbait egiteko asmoa dut. Ezin dena egin da gazteak lanean ipini inolako pizgarri barik. **Talde polita duzu Aramaion?** Oraingoan, 15 neska-mutiko. Baina, lan polita egiteko, kopuru bikoitza-edo beharko genuke: 30 bat lagun. Horrela hamar lagun izango ziren korda bakoitzeko, hiru ahots lantzeko. 24-30 lagun arteko taldea izango zen egokiena. Gainera, taldeko hiru mutil ahotsa aldatzen dabilta, hortaz, horiek, gaur egun, ezin dute larregi egin. Oso interes handia dute, teknika lantzen segitzen dute, baina, oraingoan, ezin dute abestu. Edozelan ere, jende guztia gonbidatzea gura dut; edozein etorri daiteke. 10-20

"Umeak jakin egin behar du konpromiso bat hartzen badu bete egin behar duela"

KIROLAK

Paleta Txapelketa finalerdietan da, eta bizpahiru aste barru bukatuko da

Oraingo asteburuan hasiko dira Paleta Txapelketako finalerdietako partidua. Joan den asteko partiduen ostean, lau bikote sailkatu dira: Urre-Pérez, Garaita-Flores, Arriolabengoa I.a-Azurmendi eta Barandiaran I.a-Oianguren.

Horrela, bada, txapelketako finalerdia hiru partidutara izango dira. Hain justu ere, bihar, zapatua, 09:00etan jokatu dute lehenengoa: Urre-Pérez bikoteak Barandiaran I.a-Oianguren bikotearen kontra jokatu du. Eta 10:00etan jokatu dute beste bi bikoteak.

Paleta Txapelketa bizpahiru aste barru bukatuko dela jakinarazi digute. Iaz moduan, aurtun ere sariak banatzeko ekitalditxoak egingo dute txapelketaren amaieran. Besteak beste, txapelak eta trofeoak emango dizkiete irabazleei. Eta sariak banatu ostean lancha egiteko asmoa dute.

urte arteko ume guztiek parte har dezakete. **Baina, zerbait berezia jakin beharra dago, solfeoa edo?** Abesteko gogoia besterik ez da behar; beste guztia nik erakusten diet: solfeoa, teknika... Azken baten, solfeorik ez jakin arren, abestiak asko errepikatzen ditugunez... musikarako sen ona badu hobeto. Zorionez, Euskal Herriaren jendeak musikarako sen ona dauka, batez ere, hizkuntza bi batera erabiltzen ditugulako. **Talde hau nagusien taldearen harrobi izango dela esan duzu.** Jendea nagusitu ahala nagusien abesbatza osatu gura dute. **Aberasgarria da horrelako zerbaitetan ibiltzea, ezta?** Musikak poztasun handia emateaz gain, pertsona aberastu egiten du: horrelakoetan diziplina ikasi behar dute, lotsa kentzen die, egoten erakusten die eta konprometitzen eta konpromiso hori betetzen ere erakusten die. Umeak jakin egin behar du konpromiso bat hartzen badu bete egin behar duela. Pertsona moduan hobetzen laguntzen die. **Zu pozik zaude?** Oso pozik. Izan ere, ni konprometitzen banaiz, buru-belarri sartzen naiz.

ERRETRATUZAHARRA

Orain dela
hamar urteko
Korrika

G ainean dugu Korrikaren 13. aldia. Aspaldiko partez egunez pasatuko da Arrasateko kaleetatik. Izan ere, azken hiru aldietan gauzez pasatu izan da gure herritik. Horren ondorioz, 7 urtetik beherako umeek ez dute ezagutzen Korrikarik egunez.

Hain zuzen ere, argazkian ikusten duzuen Korrika hori izan zen Arrasateko egunez pasatu zen azkenetariko bat. 1993an egin zen. Martxoaren 26an irten zen, Iruñetik, eta apirilaren 4an bukatu zen, Bilbon. *Denok maite dugu gure herria, Denok maite dugu gure herria euskaraz, Denok euskaraz.* Hiru lelo horiek erabili zituzten urte hartako Korrikan. Eta Martin Ugalde idazle eta euskaltzalea omendu zuten.

Apirilaren leian pasatu zen Arrasateko, 11:00ak aldera, garaiko kronikek diotenaren arabera. Eta oso Korrika jendetsua izan zen. Jakina, umeek eta nagusiek, guztiek batera hartu zuten parte.

Bitxikeria moduan, esan beharra dago ika-mika politikoen eraginez



Arrasateko Udalak ez zuela kilometrorik erosi Korrikaren 8. aldian. Edoze-lan ere, 37.000 pezeta eman zituen laguntzeko. Era berean, EAko, EuEko (Euskal Ezkerra) eta HBko zinegotziek kilometro bi erosi zituzten.

Honako hauek agertzen dira argazkian: ezkerretik hasita, pankar-

tari eusten Kepa Ormaetxea (bibotedu-na); haren atzekoa Pello Peñas (pankarta barik); lekukoari eusten Aitor Zubiaga; haren atzekoa Angel García; txamarra jantzita Josu Belar; apur bat atzerago dagoena, banderatik gertu, Eneko Urrizalki; haren ondokoa Iban Lazkano; pankartari eusten dabiltzan


hurrengo hirurak oñatiarrak dira: Xabi Galdos, Jon Urtzelai eta Mikel Ganuza; azkena ezezaguna da.

Argazkia: Arrasate Press
Informazioa: AEK, Udala, Larraitz Trojaola eta Korrikako webgunea (www.aeknet.net)
Urtea: 1993

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Solatarrek
zuten
lorategia

Solatarren lorategia zegoen lekuan gaur egun Grupo San Juango etxebizitzak daude. Etxebizitzok egiteko lanak 1948an hasi zituzten, eta lorategiko zuhaitz eta landareak ez zituzten askoz ere lehenago bota. Garai hartan, herrian orain baino askoz berdegune gehiago zeuden. Orain, etxebizitzek hartu diete lekua; izan ere, Arrasate azken 50 urteotan asko hazi da.



≈ 1945 Badakigu Grupo San Juango etxebizitzak noiz egin zituzten, baina ez daukagu argazkia zehatz-mehatz noizkoa den esaterik.



2003 Oraingo argazkia kanposantu zaharretik dago aterata. Argazki zaharra, berriz, goragotik aterata egongo da, Aldaigaingo etxebizitzetatik-edo.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK


Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA


Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



Gida Komertziala 2003, zure etxean!

Gidarik jaso ez baduzu edo gehiago gura badituzu, pasa zaitez hemendik:

Nafarroa etorbidea 2

Saiolan eraikina

ARRASATE

Gida Komertziala, zure eskuetan!
Informazio gehiago: 943 79 21 00

Hiru gida komertzial zure zerbitzura:

⊙ Bergara, Antzuola eta Elgeta.

⊙ Oñati.


⊙ Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza,
Leintz Gatzaga eta Aramaio.

Guztira, 22.000 ale banatu dira
Debagoien osoan.

Corsa **Edition** berria
Ekipamendu eta aurrezki eksklusiboak



Martxoan, Corsa deskontuarekin | **2.400€**
Gehienez



Opel EDITION gamak oso ekipamendu eksklusiboa eta 2.400€ eurorainoko deskontua eskaintzen dizkizu Agila, Corsa, Astra eta Zafira autoetan.

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Sustapen hau baliozkoa da Penintsulan eta Balear Uharteetan, stock-ean dauden autoendako, hil bukaerara arte. Deskontua, Corsa Diesel gamak kalkulatu.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es